




TXERTOA

Zalantzan jartzen
ez den neurri
masiboa



Jakes Bortairu, Batera:

«Euskal lurralde
elkargoaren alde,
herri kontsulta
egingo dugu
100 herritan»

Nekane San Migel:

«Epaitegietan
gutxiengoa da
euskararekiko
errespetuz
jokatzen duena»



Larrun

Miguel
Sanchez-Ostiz
idazleari
elkarrizketa

Teknologia berriak

AEBek ez dute
boterea
galdu nahi

galdera-erantzun bidezko

mahai-jolasa

badakit

35 euro

ARGIAren harpidedunek

%15eko deskontua

FORMATU BERRIA

Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

www.luditoys.com



argia
JOLASAK

zorri urtetik gorakoentzat
8+

4 Deabruaren abokatua: Josune Ariztondo. Sustrai Colina.

Pertsonaia

10 Junes Casenave Harigile: "Denbora erdia musika eta ibilka, hori ez duzu pastorala". Miel A. Elustondo.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Argizari museoak. José Luis Padrón.
21 Ondorioetaz. Eider Alkorta.
1960. urtean. Joxemari Ostolaza.
22 Hedabidegabekeriak. Paula Kasares.
Kilokotxo. Joseba Barandiaran.
23 Zirtak. Bagoirik ez zeraman tren. Jose Inazio Basterretxea.
24 Bertso berriak. Ane piratari jarriak. Uxue Alberdi.

Erdiko kaiera

- 27 Dantzan joango dira tabuak.** Gorka Bereziartua.
28 Aitor Albistur: "Eskema mentala osatzen denbora gehiago pasatzen dut bertsoak idazten baino". Estitxu Eizagirre.
31 Pil Pil. Oharkabeen bada ere. Unai Brea.
32 Liburuak. Igor Estankona.
33 Diskoak. Iker Barandiaran.
34 Ezpalak. Jon Torner.
35 Abarrak. Gorka Bereziartua.
36 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
38 Zientzia eta teknologia. Joxe Rojas.
39 Landareak. Jakoba Errekondo.
40 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 44 Nekane San Miguel: "Epaitegietan ez du aurrera egin erabilerak".** Onintza Irureta.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Hondakinik onena sortu ez dena: Zero Zabor. Pello Zubiria.

Azkena

50 Euskara bai, baina nola? Iñaki Martinez de Luna.

5 Txertoak | Unai Brea

A gripearen kontrakoak, eta aurretik beste batzuek, ezta-baida handia sortu badute ere jendartearen, inork gutxi jartzen ditu zalantzan txertoen onurak. Alta, medikuntzako zenbait ahotsek kritikatu egiten dute gaur egun indarrean dagoen txertaketa sistematikoa. Haien ustez, txertoak ez dira hain seguruak, ezta hain eraginkorrak ere.



16 | Teknologien kontrola krisi garaian Jon Torner

25 | Kulturgintza: aurrekontuen artaziak Gorka Bereziartua

41 | Jakes Bortairu | Mikel Asurmendi

Frantziako Erregio hauteskundeak eginen dira martxoan, eta ezkerreko abertzaleek bi ekimen inportante iragarri dute. Bat: Batera plataforma eskutik herri galdeketa eginen da. Bi: EHBAik protestako boto-paperaren bidez frantses sistema salatuko du.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetza: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Fax: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Fax: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparr Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea.

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua	 GIPUZKOA zurekin, aurrera	 euskaraz bai
 kutxa		



“Administrazioak ezingo du sekula maitasunik eman”

Josune Ariztondo | Hil arte politikari

Kimika ikasi zuela esan izan balidate ez nuen sinetsiko.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Barkatuko didazu ironia, zer moduz Ondarroako Udaletxean?

Kalean bizi den herria da Ondarroa. Etxeko kezka, poz, pena, eta minak plazara ekartzen dituen. Egoera baretzen doan arren, Euskal Herriaren ispilutxoetako bat gara oraindik.

Patxi Lopezen Euskadi ez al zegoen guztiz normalizatua?

Baina nola baloratuko dugu normalizazioa gobernuak egitasmorik ez badauka? Euskal Herriko andereño apalenari ere urteko egitasmoa eskatzen dio gobernuak, baina berak ez dauka. Lotsagarria.

Egitasmorik gabeko gobernu baten aurrekontuak babestu dituzuela esaten ari zara?

Noiztik dira gauza bera babestea eta ez oztopatzea? Alderdi sozialista espainiarrari egonkortasunerako proposamena egin diogu, handik etorriko direlako herri honentzat onuragarriak diren blindaje ekonomikoa edo transferentzien gardentasuna. Hemengoekin ez gara fidatzen.

Min eman dizue lehendakaritza galtzeak, e...

Heldutasun handiz daramagu, baina zer nahi duzu, gobernatzen baino ohituago daude oposizio merkea egiten.

Heldutasuna da krisi garaian kulturari aurrekontuak murriztea?

Etxean diruz larri gabiltzanean, ez al diogu lehenago uzten liburuak erosteari edo zinemara joateari beste gauza batzuk egiteari baino? Erakunde publikoetan berdin.

Erakunde publiko gaixoak, gehiegi eskatzen zaizue...

Herrietan harreman pertsonalari lotutako auzo-lana galtzeak askoz exijenteago eta eska-leago bilakatu gaitu. Exijitzea ondo dago, baina ezin da ahaztu administrazioak ezingo duela sekula maitasunik eman.

Lasai, Urdaibaiko Guggenheim-ek emango digu maitasuna!

Bizkaian Urdaibai da ondare kultural handiena daukan eskualdea, baina nola egongo da eskaparetean elementu erakartzailerik ez badauka? Zergatik ahanzten zaie batzuei biosfera zaindu ez ezik potentziatu daitekeela?

Honezkero Bilboko Guggenheim-a mendeko asmatze eztaba daezintzat daukazue, ezta?

Diru hori, adibidez, erresidentziak egiteko inbertitu zitekeela leporatzen digutenek, badakite egungo erresidentziak tartean Guggenheimek emandako diruarekin eraikitzen direla?

Transbertsalitatearen aitzindariak, zuek!

Konbentzituta nago kultura dela gizarte kohesio eta herrigintzarako oinarri eta lotura. Kulturak sentimenduak ukitzen ditu eta sentimenduek mugitzen dute gainontzekoa.

Sentimenduez mintzo den politikariak erretiroa omen du buruan...

Gure izena esan eta lehen matrailekoa eman zigutenetik politika bizi duen belaunaldi batekoa naiz, eta onerako eta txarrerako, hil arte eroango dugu sen politiko hori. ■

• ASTERO GAIA •

Txertoak

Beharrezkoa da erabilera sistematikoa?

Zenbait txertori buruz azken boladan izan diren eztabaidak gorabehera, gaur egun indarrean dagoen txertaketa sistematikoaren alde daude osasungintzako profesional gehienak eta jendartea oro har. Alabaina, txertoen segurtasuna zein eraginkortasuna zalantzan jartzen duten ahots kritikoak ere badira medikuntzan.

UNAI BREA

Historiako lehen txertoa 1796an sortu zuen Edward Jenner ingeles medikuak. Hemen Jenner bera ikus dezakegu, estraineako aldiz txerto bat ipintzen. Gaur egun herrialde garatuetan ditugun txertaketa-egutegietaranzko lehen urratsa izan zen.



AZKEN HILABETEETAN, hedabideetan gehien errepikatu den hitzetako bat “txertoa” izan da, A gripearen erruz. Eztabidak pil-pilean segitzen du eta ez gara hemen horretan luzatuko. Gogoratu behar da, halere, A gripearen aurkako txertoa ez dela izan azken urteetan polemika piztu duen bakarra. Milaka litro tinta isuri da, halaber, umetoki-lepoko minbiziaren kontrakoaz. Lehenago, dagoeneko badira urte batzuk, hainbesteko oihartzuna eragin ez zuen eztabaida sortu zen pneumokokoaren aurkako txertoa zela eta ez zela. Txabi Txakartegi bizkaitar pediateraren esanetan, hori izan da azken boladan medikuen artean debate gehien sortu duena. Eztabaidaren muina zen ea osasun publikoak bere txertaketa-egutegian sartu behar zuen ala ez, eta azkenean ezezkoa gailendu zen.

Aipatutako hiru adibideak eta agian ahaztu zaigun besteren bat albo batera utzita, gauza gutxi daukate txertoek –txerto “klasikoak”, Txakartegiren hitzak erabilita– bezain ospe ona. Osasungintzako profesionalei galdetuz gero, askok eta askok erantzungo dizute txertoak direla medikuntzak inoiz sortu duen tresnarik eraginkorrena. Meritu bat aitortzen zaie batez ere: XX. mendearen lehen hamarkadetan milaka heriotza eta elbarritasun eragiten zituzten hainbat gaixotasun infekzioso (nafarrerria, elgorria, poliomielitisa...) guztiz, edo ia, desagerraraztea, mundu osoan ez bada bai behintzat txertaketa masiboa egiten duten herrialdeetan. Honetan ere, jakina, klaseak baitaude.

Aldeko iritzi korronte hori ia erabat nagusi da, baina badira txertoak arriskutsutzat dauzkaten edo, gutxienez, txertaketaren balioa

Herrialde garatueta, 15 urte betetzerako dozena inguru gaitzentzako txertoak jaso dituzte neska-mutikoek.



WWW.PAHO.ORG



GREER EVANS


Andrew Wakefield, BCG txertoa hainbat autismo kasuren erruduna dela esan zuen medikua. Berriki, Britainia Handiko osasun-erakundeek gezurtatu egin dute Wakefieldekin esandakoa, eta bere ikerketan irregulartasunak egitea leporatu diote.

zalantzan jartzen duten medikuak. Gutxi dira, eta haien ahotsa ez da gehiegi nabarmentzen, baina lantzean behin txerto klasiko horien aurkako kritikek hedabideen arreta bereganatzen dute. Orain gutxi, esaterako, hizpide izan dugu Andrew Wakefield sendagilea, lerro hauen gainean ageri den bera. Otsailaren 2an, *The Lancet* aldizkariak, medikuntzaren arloan munduan dagoen argitalpenik ospetsuenetakoa batek, bere artxibotik ezabatu zuen orain dela hamabi urte kaleratutako Wakefielden artikulu bat. Hartan, medikuak esan zuen BCG txertoaren eta autismoaren arteko lotura zuzena zegoela. Elgorria, parotiditisa eta errubeola prebenitzeko jartzen da BCG. Txertoa bera baino, haren eraginkortasuna handitzeko erabiltzen den osagaietako bati leporatu zion Wakefieldekin autismoa eragitea: Tiomersal, merkurio kantitate handia daukan konposatuari. Ondorio batzuk izan zituen artikulu hark: batetik, txerto-egileak merkurio kantitatea gutxitzen hasi ziren; bestetik, guraso askok uko egin zioten beren umeek BCG txertoa hartzeari.

Zerk bultzatu du *The Lancet* hala jokatzera? Bada, urtarrila amaieran, urte bi iraun duen ikerketa eta gero, Britainia Handiko Medikuntzaren Kontseilu Nagusiak ebatzi zuen Wakefieldekin irregulartasun handiak egin zituela artikulu hura prestatzeko ikerkuntzan. Legal Aid Board elkartearen enkarguz egin zuen lan hura, eta dirutza polita jaso zuen ordainean. Legal Aid Board-en helburua, hain zuzen, BCG txertoa ekoizten duen enpresa epaitegitara eramatea zen. *The Lancet*-ek publikoki agertu du bere damua artikulua argitaratu izanagatik, eta osasungintzan lehendik ere nagusi zen argudioa indarberrituta atera da: ikerketa bakar batek ere ez du frogatu Tiomersalaren eta autismoaren arteko lotura dagoenik.


ELGORRIA

Heriotza kopurua 1901-1986




KUKUTXEZTULA

Heriotza kopurua 1901-1986




POLIOMELITISA

Jakinarazitako kasuak 1940-1995



DIFTERIA

Heriotza kopurua 1901-1999



Iturria: Vacunaciones sistemáticas en cuestión. Juan Manuel Marin.

Txertaketa kontzeptua bera zalantzan

“Wakefield kasua” kolpea izan da txertoen aurkakoentzat; haien webguneetan merkurioaren arriskuaz hitz egiten da erruz. Baina gerra ez da hori bukatzen. Izan ere, haien kritikak merkurioa baino askoz arrazoi sakonagoak ditu. Tiomersal, azken batean, txertoari gehitzen zaion substantzia bat baino ez da; eta haien ustez, txertaketa kontzeptua bera jarri behar da zalantzan. Bi ardatz ditu kritikak: txertoak ez dira sinetsarazi nahi diguten bezain seguruak, eta txertoak ez dira sinetsarazi nahi diguten bezain eraginkorrak. Mito hutsa dira, diote zenbaitzuek, baina oso mito sendoa.

Begiratu goiko grafikei. Juan Manuel Marin espainiar medikuaren *Vacunaciones sistemáticas en cuestión. ¿Son realmente necesarias?* (Txertaketa sistematikoak ezbaian. Benetan dira beharrezkoak?) liburutik hartuak dira. Marinek dioenez, grafikootan argi ikusten da bertan ageri diren gaixotasunen beherakada haien kontrako txertaketa ezarri baino lehenago hasi zela. Hortaz, ez legoke esaterik beherakada hori txertoek esker gertatu dela. Beste nonbait bilatu behar dira hainbat gaixotasun infekzioso XX. mende hasieratik hona ia desagertu izanaren arrazoiak, eta txertoekiko kritiko direnek ez dute zalantzarik: gaixo zein heriotza kopuruaren beheraldia bizi-baldintzen hobekuntzari zor zaio. Higienea, elikadura hobea, saneamendu-sistema egokiak... Marinen ustez, horiek izan dira birus eta bakterioei jarri dizkiegun oztopo nagusiak, eta ez txertoak.

Txertoen alde gehien aipatzen den argudioa da haiei esker hainbat eritasun desagertu edo ia desagertu egin direla. Aurkakoei diote bizi-baldintzak hobetzei zor zaiola hori, eta ez txertoek. Goiko grafiken bidez, Juan Manuel Marin medikuak erakutsi nahi du zenbait gaixotasunen intzidentzia aspalditik zihola beherantz txertaketa masiboak hasi zirenerako.

Oso bestelako iritzia du Jose Maria Bayasek, Asociación Española de Vacunología (AEV) elkarteko presidentek: “Argi dago gaixotasun askoren intzidentzia nabarmen gutxitu zela bizi-baldintzak hobetzean, baina desagertu badira txertoek esker izan da. Esaterako, 80ko hamarkadaren erdian, urtero 400.000 poliomielitis paralisi-eragile kasu zeuden munduan, gaur egun 1.000 dira. Eta hori gertatu da Osasunaren Mundu Erakundeak txertaketa-programa bat jarri zuelako abian”. Halako adibide gehiago jartzen dituzte txertaketaren aldekoek, betiere duela hamarkada gutxi, hau da, bizi-baldintzak gaur egungoen antzekoak zirenean, ematen hasi ziren txertoak aipatuz. Bayasen ustez, elgorriaren kontrako txertoa emateari utziko bagenio, urte gutxiren buruan dozenaka ume hilko litzuke gaixotasun horrek Espainiako Estatuan. Adibide bat baino ez da.

Txertoen kalteak

Ez dakigu hainbeste gure sistema immunitarioaz, diote kritikoek. Eta dakigunak iradokitzen digu –gaineratzen dute– askoz kontu handiagoarekin erabili beharko genituzkeela txertoak. Eneko Landaburu sendagileak uste du medikuntza ofizialak, txertoak guttiz seguruak ez direla onartu arren, haiek eragindako kalteak ezkututzen saiatzen dela. Benetako arriskua publikoki aitortzen dena baino handiagoa da, txertoek eragindako bigarren mailako efektuak –heriotza barne– gertatzean, mediku gehienek uko egiten diotelako gaitzak txertoarekin zerikusia daukala onartzei.



Txertoak hiru modutan egin daitezke: bizirik dauden mikroorganismo indargabetuekin, inaktibatutako –hau da, hildako– mikroorganismoekin, edo, berrikiago, ingeniariatza genetikoaren bitartez. Lehen motakoak dira arriskutsuenak.

Medikuntza ofizialak, hala dei diezaioagun erosotasunaren mesedetan, arriskua dagoela onartzen du, baina ez aurkakoez salatzen duten bezain handia denik. Jose Maria Bayasek poliomieltisaren adibidea ipini digu berriaz: txertoa hartzen duten bi milioitik batek –bakar batek, ez milioi batek– paralisia jasaten du, baina arrisku hori hartuta urtean 400.000 kasu izatetik 1.000 izatera pasatu gara. “Bestalde –gaineratu du AEVko presidentek–, ordaindu beharreko zerga hori ez da hain garestia, kontuan izanda txertoaren erruz gaxotu den ume horrek askoz aukera handiagoak edukiko zituela poliomieltisaz kutsatzeko txertoa hartu gabe, txertoa hartuta baino”. Arazoa da, Bayasen ustez, normalean ez dugula piramidearen oinarria ikusten, alegia, txertoei esker hiltzen ez diren milioika pertsonak, eta aldiz, arreta handia eskaintzen diegula piramidearen erpinari. Erpin horretan daude txertoei leporatzen zaizkien efektu kaltegarriak, “batzuetan arrazoiz eta bestetan arrazoirik gabe”, nabaritu du Bayasek.

Eneko Landabururen hitzetan, medikuntza konbentzionalak –adjektiboa berarena da– 500.000 txertotik batek kalte larria eragiten duela aitortzen du. Beraren ustez, askoz gehiago da: “1988an, AEBetan lege bat onartu zuten, txertoek kalteetutakoei ordaina ematera behartzen duena. Itxuraz, ez dago hain kasu gutxi; administrazioak milaka

eskari jasotzen ditu, eta milioika dolar gastatzen ari da kalte-ordainetan”. Txertoen aurkako literatura espezializatuan –Interneten asko dago– bigarren mailako efektuen adibide asko aurkitu daiteke.

Horri gehitu beharko litzaioke, Landaburuk dioenez, txertoek epe ertain-luzean ere eragin ditzaketela kalteak, “eta oraindik gutxi dakigu horretaz”. Autismoarekin ez ezik, minbiziarekin, esklerosiarekin eta bestelako gaixotasun auto-immuneekin lotu izan dira txertoak. Esan gabe doa lotura horien frogaririk ez dela aurkitu oraino. “Lotura hori ez baita existitzen”, aldarrikatuko dute batzuek; “txertoei buruzko ikerketa gehienak txertoen aldekoek egiten baitituzte”, besteek.

Gehiegi, gazteegi?

Txertoei egiten zaien beste kritika bat da haurrei oso txikitatik hasten zaiela ipintzen, eta bizitzako lehenengo urteetan gehiegi hartu behar direla, sistema immunitarioa behar bezala garatuta ez dagoenean. Jose Maria Bayasentzat, argudioak ez du funtsik: “Ume txiki batek jasaten duen estimulu antigeniko kopurua –airearen bitartez, elikagaien bitartez...– eskerga da, eta txertoek eragindako estimulua tantatxo bat baino ez da itsaso horren barruan”. Bestetik, lehenengo txertoak ipintzen dizkietenerako, jaioberrien sistema

immunitarioa prest dago, Bayasen esanetan. “Batzuk bi hilabeterekin ematea eta beste batzuk bi urterekin ez da kapritxo erabakita-ko zerbait, beti itxaroten da sistema immunitarioa behar bezala garatuta egon arte, eta txerto bakoitzarekin epe hori desberdina da”.

Txertaketari intsumisoak

Hain goiz hasten da ume baten txertaketa, Javi Bayon eta Maite Michel bilbotarrak ustekabean harrapatu zituela albisteak. “Semea jaio eta, pediatararekin lehenengo elkarrizketa eduki orduko, handik hamabost egunera itzuli behar ginela esan zigun, txertoa jartze-ko”, azaldu digu Michelek. Bikotea txundituta gelditu zen esan zientean medikuek haurrari txertoa ipintzen zioten bitartean beraiek kanpoan egon behar zutela, txertoak eduki zitzakeen kalteez dokumentu bat irakurtzen eta umea txertatzeko baimena sinatzen.

“Hitz eginda geneukan nolakoak izango ziren erditzea, edoskitzea eta beste hamaika kontu, baina txertoei buruz ez geneukan ezer erabakita, besteak beste ez genekielako egutegia hain goiz hasten zenik”, diote. Lehenbiziko erabakia txertoez ondo informatzea izan zen. Bigarren erabakia, behin informatuta, umeari txertorik ez ipintzea izan zen.

Euskal Herrian oso guraso gutxi abiatzen dira Bayonek eta Michelek hartutako bidetik. Horietako bat, Coro Goitia, medikua ere bada, eta orain dela urte gutxi Espainiako Estatuan egindako ikerketa bat aipatu digu. Haren arabera, estatu osoan 700 inguru ziren txertatu gabeko umeak.

Hain kopuru urriaren azalpen bat izan daiteke jende askoren ustean txertatzea derrigorrezkoa dela. Eta ez da. Hautazkoa da, legea eskuan. Baina ez da hain hautazkoa txertaketaren aldeko presioa kontuan hartuz gero. Eta ez medikuen presioa bakarrik, baita ere

senideena, lagunena, jendartearena oro har. Hala adierazi digute, behinik behin, Bayonek eta Michelek. “Hasieratik igarri genuen sendagileek jarrera itxia zeukatela gurekiko, oso mediku gutxi eman ziguten eskatzen genien informazioa, eta horrek susmarazi zigun agian txertoak ez direla esaten duten bezain gauza ona. Orobat, oso informazio gutxi daukagu txertoez, eta inertziaz jarduten gara. Onak direla esan digute, eta besterik gabe onartu dugu hala dela”.

“Oso mediku gutxi eman ziguten txertoez eskatzen genien informazioa. Inertziaz jarduten gara, onak direla esan digute eta onartu dugu”
J. BAYON ETA M. MICHEL,
SEMEA EZ TXERTATZEA ERABAKI DUTEN GURASOAK

Bayon, Michel eta Goitia bezalako gurasoei sarritan leporatzen dieten gauzetako bat da artalde-efektuaren babesa aprobetxatzen dutela, baina txertaketaren arriskuak saihestuz. Hots, txertatu gabeko umeak ez dira gaixotzen inguruko guztiak txertatuta daudelako, eta horrek birus eta bakterioen zirkulazioa eteten duelako. Alabaina, txertoen aurka dauden ustez oso eztabaidagarria da artalde-efektua existitzen denik ere; Alan Phillips-ek, AEBetako Osasun Askearen Aldeko Herritarrak elkarteko presidentea, gogorarazten du behin baino gehiagotan izan direla epidemiak jende gehiena txertatuta zegoen eskualdeetan. Gaiak badu bere garrantzia Juan Manuel Marinen ustez, artalde-efektuaren kontzeptua jotzen baitu gaur egungo txertaketa masibo estrategiaren ardatz nagusitzat.

Honen guztiaren atzean, diote Marinek eta enparauek, farmazia-industriaren negozioa dago. “Jakina txertoak negozioa direla”, amestitzen dute aldekoek. Kontua da ea zilegi den ala ez, dirua irabazteko modu hori. Horri buruz, zera dio Jose Maria Bayasek: “Gaur egun txertaketa-egutegian dauden txerto guztiak behar-beharrezkoak dira”. Eta gehiago datoz: une honetan 400 txerto berri inguru sortzeko ari dira lanean Europako laborategietan. Hainbeste gaixotasun zegoenik ere ez genekien. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
 943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea

Junes Casenave Harigile

«Denbora erdia musika eta ibilka, hori ez duzu pastoralala»

Junes Casenave Harigile, pastoral idazle ezaguna. Haatik, olerkari ere bada, eta hizkuntzalari, eta saiakera egile. Apez betharrandar, Altzain (Zuberoa) bizi da, Ozazetik Etxebarrera bitarteko hamar elizaren ardurapean, bihotza zabalik eta begitartea arrai...

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Erran diguzu, hasteko, goizeko bostak eta hamarretan jaikitzen zarela, gimnastikaren egiteko.

Jaiki nauzu, tualeta egiten dut, eta bostak eta hamarretan egiten dut gimnastika. Oren erdi bat, goiz guzietz. Eta uste dut guziek behar luketela egin gimnastika, ez beharbada hain goizik, baina bai egun guzietz. Uste dut beharrezko den oraingo mende honetan, zeren jendea ez duzu haboro higitzen, eta ikusten duzu zenbatek baduen erreumatismoa, hats nekea, buruko min eta holako anitz. Erran nezake, laborariek ere behar lukete, besteek baino gehiago, eta erraten diet: “Badütüzüe züen traktoreak, autoak, eta ez düzüe besterik egiten! Eskülanik ez düzüe haboro egiten, eta hortakotz beharrezkoa düzüe güziek egin gimnastika zerbait!”. Anitzetan, gazteak, bizkarreko min edo holako min bat dutela, higiarazten ditut, edo bestela ematen diet paper bat gimnastika nola egin behar den xuxen esplikatzeko.

Bizi guzian egin duzu gimnastika...

Gazte nintzelarik esport anitz egiten nuen, pilotaka –xarearekin– [horman eskegia du xarea], eta futbol, errugbi, ibilka edo kurritze. Denak egiten nituen. Gero, izan ninduzun irakasle Limoges-en, eta han, hiri erdietan ez zenuen ber modan. Orduan, pilota plaza eginarazi nizun. Pilotaka ibiltzen nizun han. 1952an, hasi ninduzun yoga egiten. Orduan ez zenuen modan, orain bezala. Gogo bat atzeman nizun eta hasi ninduzun. Limoges-eko herrian, bazter guztietarik tinkaturik ninduzun. Nik maite nituen mendiak, bazterrak, kurritzea... eta ikusi nizun beharrezkoa zela gimnastikaren egitea. Hola ninduzun abiatu.

1924an sortu zinen.

Bai, apirilaren 4an. Hiru anaia bagintuzun etxean. Beste bi hilak dituzu...



Aita ez zenuen eskualduna. Ama, santagaraztarra. Aita biarnesa nuen, Santa Grazira jinik, lanean, oihezain. Gero, anaia ere ukan dut oihezain. Familian oihezain anitz ukan ditut, osabak eta kusiak... Ama Santa Grazi-ko nuen eta, ezar dezagun, hark lagundu zidan anitz zuberera hiztegiaren egiten. Hogeita hamar urte egin genizun lanean

elkarrekin! Hartu genizun Piarres Lhande-ren hiztegia eta oporretan jiten nintzelarik, hitz guziak iragaten genituen. Eta erraten zidan: “Badakizü, Junes, holako hitza? Ez düzü hori hori!”. Izugarriko hiztegia egin genuen...

Santa Grazin, euskaraz hazi zinen.

Nortasun agiria

Junes Casenave Harigile (Santa Grazi, Zuberoa, 1924). Lana, fedea eta euskara dira, Txomin Peillen erranaren arabera, gure Junes biziaren hiru gakoak. Lehenik, apez da, betharramdarra. Hogeitaz baino haboro eginak ditu oraingo herrian, Altzain, nahiz eta hamar parrokia ere badituen bere ardurapean. Bigarren, apez lana ez ezik, irakasle eta pedagogo izana da Limoges-en (Frantzia) eta Donapaleun. Hirugarrenik, euskara xiberotarra: hamaika pastoral ditu taularatuak, eta beste hainbat gorderik, zain. *Euskara-Frantse-
tsa* eta *Frantse-
tsa-Euskara* hiztegia eginak ditu, testamentu berria euskaraz emana, latin-euskara hiztegia ere egina, olerkiak... Gaitz erdi, ezagutua da bere lana, hainbat sari eta ohore jasoa da.





Maite herria

“Altzain nauzu apez baina baditut hamar eliza ene kargu. Urrunen, Ozaze eta Etxabar, bi bazter... Azken urte horietan ikusten dituzu herriak gutxitzen ari direla, apurtzen, leku guzietan, Xiberoan eta bestetan, Baxenafarroan eta Lapurdin; kostaldean ez bestetan. Jadanik, Hegoaldean –Nafarroan, hasteko–, eginik da. Hemen ere, bazterrak ari dira gutitzen, jendea gutitzen. Hori da problema. Zer izanen den, ez dakizu. Esperantza badizugu eta hartakotz dugu lan egiten, jendeak maite ukan dezan herria, eta hor egon dadin”.

Ttipitan euskara ematen genizun, ez zen beste mintzajerik. Guziek ematen genizun euskara. Frantsesa ere ematen nizun, eta biarnesa ere bai, hein batean. Eskolara joaten gintuzun sei urtetan. Etxe saihetsean nuen eskola. Oraindik ikusten dut nola joaten gintuzun, kaier bat harturik... Paper batean egiten genuen lana eta joaten ninduzun errejentarengana. Hark ontsa zela erranik, nik, ene buruari: “Ez dük hori ontsa!”, nik banekizun hori. Errejentak onartzen zizun mintza egitea euskaraz

Santa Grazin. Bestetan ez zenuen hola, baina Santa Grazin bai. Han bereko emazteki batekin ezkondua zenuen, eta onartzen zuen.

Eskolatik landa, zer zen zuen denbora?

Nik ez nizun lan handirik egiten etxean. Auzoetan laguntzea bai, hori egiten nizun... Gauza bat oroï naiz. Hamar urte banizkizun, erabakia hartu nizun apezgora joatea, betharrandar. Han bazen –ontsa ezagutua baituzu–, Albert Constantine medikua, Atharratzeko mera izanik, auzapeza –eta Kontseilu Orokorrean ere bazen gizon hura–, Santa Graziko gure etxea usu jiten zitzaizun. Laket zuen gure etxea. Eta egun batez, aita eta amak erran ziotelarik joaten nintzela Betharramera, hasi zen espantuka: “Oi! Galdürük da güre kültürendako!”. Nik, hamar urtetan, ene buruari: “A bai? Igurik amiñi bat!”. Eta deliberratu nizun ordutik zerbait eginen nuela euskarari buruz. Hamar urtetan.

Apezgoaren bidean zerk jarri zintuen jakin nahi nuke.

Luze duzu kontatzea, baina labur nahi baduzu... Elizara joaten gintuzun, igande guzietan, eta hura ikusi eta hunki izan ninduzun. Eta deliberratu. Bestalde, banizun askazi bat,

betharrandar baitzen, fraide. Eta hura ikusten, eta hola... Betharramen egin nituen lehen ikasgaiak eta hogeita bat urtetan joan ninduzun Palestinarat. Betleemen errezibitu nituen beste eskolak. Betleemen gauzak ontsa zenituen hatsarrean, baina gero jin zen juduen eta arabiarren artean gerla. Han ninduzun Israeleko herria egin zelarik, 1948an, maiatzaren 17an. Nire artean beti pentsatu dut ez zela arranjamenik izaten ahal. Eta badituzu 60 urte iraganik! Ez dut ikusten nola antolatuko diren! Hobe, antolatuko balira, baina ez dut ikusten nola!

1948an apeztu zinelarik, Zuberoan gaindi alemanak ibiliak ziren. Ezagutu zenuen garai hori, Santa Grazi jende pasabidea izan zen denbora?

Bai, bizi ukan dut, eta atxiki gogoan. 1944an behar nizun joan Alemaniarat, otsailaren 24an, STOren egiteko. *Service du Travail Obligatoire* [Derrigorrezko Lan Zerbitzua]: gazteak behar zuen joan, eta nik ere bai. Gers-en nintzen, Frantziako departamenduan, eta deliberatu nizun ez nintzela Alemaniarat joanen. Orduan, zer egin nuen, Santa Grazirat joan ninduzun. Banituen paper faltsuak. Deitzen ninduzun Juan Garzia! Bagenituen lagunak Hondarribian, eta prest nintzen Nafarroatik Hondarribiari buruz joateko. Santa Grazirat jin nintzen gau berean, elurra! Otsaila zenuen, elurra, eta ezin iragan... Arrajin ninduzun, gibel, eta gorderik egon nintzen gerla finitu artean, bederatzi hilabete edo, betharrandarrek zuten laborantza etxe batean.

Arestian erran duzunez, Junes Casenave, Juan Garzia izan zen.

Bai, normal duzu. Lehenik, Junes deitzen nauzu, "Juan", eta "Garzia", Santa "Grazitik" hartu nizun.

Betleemen apezturik bihurtu zinen Euskal Herrira, Betharramera. 24 urtetan.

Bakoitza bere gaindi

"Bakoitza bizi da itzulirik bereganat. Ezar dezagun, bi auzo, ez dira elkar ezagutzen ere! Hemen, Altzain, ezagutzen bai, baina guti elestatzen elkarrekin. Traktorearekin edo autoarekin ibiltzen dituzu beti. Aitzinetik oinez ibiltzen baitziren, elkarrekin mintzatzen zitzaizkizun. Orain ez da holakorik. Bakoitza bizi duzu bere gaindi, eta, ezar dezagun, elkarrekin badirelarik, asoziazioak, hemen, Zuberoan, gazteek ez dute parte hartzen. Hori problema handia da geroalrat, eta euskararentzako ere bai".

Eta ikasgaiak egin nizkizun. Irakasle izan nintzen Betharramen, lau urtez. Gero, hamabi urtez Limoges-en, eta Donapaleun hamazazpi, kolegioko buruzagi. Ondotik, hona jin ninduzun, Xiberora, 1981ean. Lehenik, Larrainera; bi urte egin nizkizun han. Nihaurek galdatu nizun, ikusten bainuen kolegioko lana emeki-emeki enetako neke zela baina banuela beste ezertarako ahala eta hor duzu. Larrainen sartu nintzelarik ez nekizun zer egin behar zen ez bataio batendako, ehorteentzako, ezkontzentzako... Ordu arte izan bainintzen beti irakasle. Ikasi behar ukan nizun. Oraino ez dakit anitz! Larrainen egon nintzen bi urtez eta gero hona jin nintzaizun, Altzaira, hemengo apezta gazterik hil baitzen, bihotzetik, eta galdegin zidaten hona jaitea. Eta jaitsi ninduzun Larrainetik hona. Eta badituzu 27 urte hemen berean naizela.

Nondik heldu da zure euskaltzaletasuna?

Ttipitik, betidanik, biltzen gintuzun karrikan haurrak eta pertsutan aritzen gintuzun. 7-8 urtetan, gure manerarat, badakizu! Ez dut uste erraiten ahal denik euskararen maitasuna handik edo hementik jin zaidala. Hola duzu, ez da besterik. Betidanik, euskararentzako baldin bazen zerbait, Atharratzen edo bestetan –izan baitziren momentu gogorxoak–, beti hor ninduzun.

Ttipitan, noiz ikusi zenuen lehenbiziko pastoral?

Banituen 5 urteak. Santa Grazin eman zuten *Moise*. Familia guzia joan gintuzun. Ez zegoen biderik, otorik ere ez, oinez jaitsi gintuzun, xenda batetik barna, kasernarat. Han zen pastoral. Hori nuen lehen aldiko ikusi, haurra nintzelarik. Orain, haurrak bazterten dituzte pastoraletan, zenbait aldiz. Nik erraiten dut: "Ez. Haurrak utzi itzazue pastoraletan". Haurrak pastoraletan direlarik, gero betiko badute hor. Ez



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



AZKEN HITZA

Zuberera 'hein batean!'

—Manexek diote —guk barne—, Zubero-ako üskara diferentea dela. Ez dugu erraz konprenitzen...

—So egin ezazu zük: ni zuberotarrez ari nüzü, zü Gasteiztik heltü zira. Zer pentsatzen düzü? Zühaurek arrapostüa eman ezazu. Elkar entzüten düzügü... hein batetan!... Hein batetan!

dute ahazten. Haurrak utzi behar dira pastorallean so egin dezaten, eta ez baztertu.

Handik goiti izan duzu pastoralaren gogo handia?

Bai. *Moïse* ikusi nuelarik, 1929an. Han bazenuen kantari bat, ene auzoa zenuen, izigarriko boz ederra zuen. Beti ikusten dut kantuan bezala. Familiak adiskide handiak gintuzun.

Boz ederrak beti Zuberoan. Zendako?

Erraiten dute bortuak egiten duela boz ederra, hain segur. Larrainek eta Santa Grazik ematen dutelarik pastoralara, beti entzuten duzu: "Horiek, bortüko bozak!". Pettarran ere badira bozak, haiek ere badituzte boz ederrak... Eta mundu zabalean gaindi, guzietan badituzu boz ederrak, pentsatzen

dut. Euskaldun bezala eta zuberotar bezala, laket gara kantuan. Ni ere besteekin batera kantatzen aritzen naiz... Eta dantzan!

Izkiribatzen hasi zinen halako batean...

Beti izkiribatzen nizun. Hasteko, hitzaldia mezan. Baina hori besterik da. Izkiribatze mementu horretan, gogoan genuen ez zela izkiribatzen hasi behar 45, 50 urte gabe. Hola zenuen. Geroztik gazteak hasi dira izkiribatzen, baina guk, mementu horretan, ez zenuen onarturik izkiriba genezan lehen. Ezar dezagun, Santa Grazi pastoralara da ene lehena, 1976an. Etxahunen ikusten joan ninduzun eta: "So egizü, heben dütüzü dokümentüak, egin ezazü Santa Grazi pastoralara". Baina ez zuen egiten. "Ez dük egiten? Bada,



Sendotu, ez 'artatu'

"Arrats honetan ere emazte batek telefonatu dit, ea jiten ahal zen ene ikustera, begitarte guzia sutan zuela, dermatologoek ikusi dutela eta ez zutela deusik egiten ahal. Eta nik sendotuko dut. Ez 'artatuko', sendotuko! Emanen diot pomada, nihaurek egina [eta pote txiki bat ekarri digu]. Honek larruko min guziak sendotzen ditu, azalekoak. Bai psoriasis, bai ekzema, barizetan badiarelarik zuloak, botoinak [garatxoak]. Belarrekin egiten dut pomada hori. Amak erakutsi zidan parte bat, baina nihaurek barnatu dut gero. Santa Grazin, aitzinetik, guziak sendagile ziren, etxe bakotxean. Ez zenituen orain bezala medikuaren ikustera joaiten, ezdeusentako. Barka "ezdeusentako"! Kar, kar, kar...".

nihaurek eginen diat!". Eta hola ninduzun abiatu lehen pastoralal idazten. Geroztik baditut hamabi pastoralal emanik –bat batuaz, San Mixel Garikoitz, bestea frantsesez, Juan Martin Pueyrredon–, eta bederatzia haboro, emateko! Emanen dituzue ni hil ondoan! Kar, kar, kar...

Lan handia iduri du pastoralal idazteak. Bertset horiek guztiak-eta, historia baten inguruan...

Gai horretan, enetako, hori ez duzu problemarik. Problema duzu nahi dudala, beti, dokumentazioa ontsa ikertu. Enetako hori da lan handiena. Idaztea... ez dakit zein pastoralal, hamabi egunez ari izan ninduzun idazteko. Ez da problema, berrehun eta hoge bertset, eta badira haboro ere! Bestalde, kantoreak. Lehen luzeago zenituen, 340 edo hola.

Zenbat jende zen pastoralalean sasoi hartan?

Herritarak zenituen, bat edo beste auzoetarik jiten zitzaizkizun, zenbait aldiz, baina urrunezik gabe. Kanpotik guti zen. Nik uste 700 jende biltzen zen pastoralalaren ikusten. Arizaleak? Guti, 20, 25. Ez haboro. Orain 100-eta dira! Sobera. Pastoralal orain *show* bat bezala da. Behar da kanbiatu. Lan bat egina dut, pastoralalendako, zer den, ereduak zein diren, nola idazten den... Egina dut, baina ez dakit noiz agertuko den.

Urtero ikusten duzu pastoralal?

Ez. Baduzu hiru-lau urte ez naizela joaten. Ez dut Alozekoa ikusi, ez Ligikoa, ezta Maulekoa edo Ezpeizekoa ere, eta Idauze-Mendikoa ere ez. Ikusiak ditut, nik idatziak baitziren, Santa Grazi, eta Eñaut d'Elizagarai... Bata Gamen, bestea Santa Grazin. Baina ekiarengatik, eta begiengatik, ez

nauzu joaten, ezin dut. Operaturik izan ninduzun bi begietarik, eta ekiak min egiten dit. Bestenaz ikusiko nituzke, bai. Uste dut oraino... Bo! Ene adinean ez duzu anitz ikusiko!

Anitz kanbiatu da pastoralal?

Hori ikusten ahal duzu zuhaurrek. Uste dut. Hartakotz dut idatzi lan hori, pastoralal zer den esplikatzeko. Uste dut beharrezko den xuxen atxiki dezagun pastoralal. Bestela *show* bat bezala duzu, dantzak, ibilaldiak, testuak baino haboro dituzu. 100 arizale baldin badira, ikusten duzu zenbat denbora behar den haien ibilaldiarendako. Denbora erdia iragaten da ezdeusetan, musika eta ibilka, eta ez da hori pastoralal. Hori kanpoko gauza bat da, baina ez pastoralal. Beharrezko da ibilaldia, baina ereduak badira, eta behar da horiek jarraiki, xuxen.

Pastoralal ez ezik, olerkia ere izkiribatua zaitugu.

Bai, anitz izkiribatu dut. Badut anitz publikatua *Maiatz* agerkerian eta besteak publikatzeko. Baditut 2.000 bertso-edo. Erraitetako idazten dudala, so egizu... [orrialde sorta erakutsi digu, denak izkiriatuta]. Ikusten duzu? Idazten dizut Ebanjelioaz eta zernahitaz: naturaz, barne sentimenduaz, historiaz... Badut ahala, eta idazten dut. Lehenik, maite dut euskara, eta xiberoarra maite. Eta zerbait, horri buruz egiten dut. Ez da besterik. Gauza beharrezkoa da gogo hori ukaitea.

Eta 45 urtez goiti ere bazara...

Bai, bai... Hiruretan hoge gehiago! Kar, kar, kar... ■

www.argia.com/argia-astekaria

helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.

Harpidedun egin zaitez 44€
eta opari gisa liburu hauetako bat:

ARTE ESZENIKOEN ALDIZKARIA

ARTEZ

44€ (Bez eta bidalketa gastuak barne), 12 zenbaki (bat hileko) urte betez

Abantailak:

- %25 beherapena Artezblai Argitaletxeko liburuetan
- %5 beherapena Yorick liburudendan eros daitezkeen gainontzeko liburuetan

El autor y su sombra
Alfonso Sastre

Cuadernos esotéricos de San Francisco

Celame
Luis Mateo Díez
Fernando Urdiales

Tel: 944 795 287

www.artezblai.com

artez@artezblai.com

• Internet eta kapitalismoa •

Teknologien kontrol lehia krisi garaian

Amerikako Estatu Batuen gainbeheraz asko hitz egin da azkenaldian, eta superpotentzia izateari utziko diola pentsatzen duenik ere bada. Dan Schiller teknologietan aditua ez da iritzi berekoa. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) sistema kapitalistaren ardatz diren heinean, krisi garaian AEBek protagonista izaten jarraitzen dutela uste du.

JON TORNER

KAPITALISMOA, bere makineria eraberritze-ko, IKTe osatzen duten hazkunde —edo garapen— poloaz baliatzen dela azaldu du Dan Schiller Illinoisko Urbana-Champaign Unibertsitateko irakasleak, *Le Monde Diplomatique* aldizkariaren urtarileko zenbakian plazaratutako artikuluan⁽¹⁾. Azken urteetan dinamika horrek abiadura ikaragarri handia hartu du; iritsi berriek (Cisco, Amazon, Google, China Mobile...) ordena ekonomikoa eraldatu dute. Kulturaren merkatuak olatu digitalaren ondorioei aurre egiten die, telefonia mugikorrak eta Internetek “telekomunikazio” tradizionalak mehatxatzen dituzte; eta eramangarri nanoek zaharkiturik laga ditzakete telebista eta ordenagailuak. Bilakaera horrek irensten dituen inbertsio erraldoiak ditu hizpide Schillerrek.

2008an, AEBetako Gobernuak 45.000 milioi euroko laguntza berezia eman baino lehen, Citigroup-ek, egoitza nagusia New Yorken duen munduko finantza-enpresarik handienak, 25.000 programatzaile zituen bere zerbitzura, eta informazioaren teknologietan 4.900 milioi dolar inbertitu zituen, gastu operatiboak aintzat hartu gabe. Lehman Brothers bankuak, 2008ko irailean hondoa jo baino lehen, hainbat kontinente-tako 25.000 zerbitzaritan ostatu hartzen zuten 3.000 software programa erabiltzen zituen. Finantza krisia lehertzean, sarea finaturik zegoen jada, bere inpaktu hilgarria periferiara zabaltzeko prest. Hala ere, 2008ko kataklismoa lehertu zenean industria informatikoak jokatu zuen paperaz oraindik ez gara jabetu⁽²⁾.

Komunikazioa eta informazioa hazkunde kapitalistaren errape bihurtzen ziren heinean, jarduera adar osoak desagertu egin ziren ia, merkatu-logika batzuen ondorioz:

- Skype, 2009an 400 milioi erabiltzaile zituen Internet bidezko doako telefono zerbitzua, mugaz gaindiko komunikazio hornitzaile nagusia da jada. Beste operadore batzuekin batera, erabiltzaileen ohiturak aldatzea lortu du: dagoeneko ez dute telefono finkoetatik deirik egin nahi. Skype programaren zabalkundeak errendimendu handiko sarbideen eta telefonia mugikorraren eztanda ekarri zuen, enpresei zuzendutako on-line zerbitzuen eskaintza handitzeaz gain. Skype 2003an sortu zuten Janus Friis daniarrak eta Niklas Zennström suediarrek, eta 2005ean 2.600 milioi dolarren truke erosi zuen Kaliforniako Ebay enkante-etxeak.

- Konexio merkeek bultzatuta, guztiz ekipatuta zeuden eta lineaz kanpoko funtzionamendu autonomoa zuten 1980ko ordenagailuak zaharkiturik geratu dira. Arian-arian, datuak (posta elektronikoa, argazki pertsonalak, enpresen datuak...) operadore handien zerbitzarietan biltegitatu dira. *Cloud computing*⁽³⁾ deitzen zaio horri.


- Telefonia mugikorrak arriskuan jarri ditu ordenagailuen eta telebistaren merkatuak. Gaur egun, mundu osoan multimedia pantaila bezala funtzionatzen duten 4.500 milioi telefono mugikor daude.

- Apple, Amazon eta Google-k, hiruak estatubatuarrek, musika, liburu, zinema eta bideojokoen industria irauli dute. CDaren merkatua hondoratzen ari den bitartean,

(1) Artikulua *Le Monde Diplomatique*ren Peruko edizioan: <http://ttiki.com/10536>

(2) Nazioarteko Diru Funtza: *Perspectivas de la Economía Mundial* (PDF): <http://ttiki.com/10537>

(3) Argia.com: *Laino guztien azpitik*: <http://ttiki.com/10538>



Apple, Microsoft, Google, Yahoo, Amazon, Facebook, IBM, Skype... AEBetako konpainien zerbitzuek mundu osoa koloreztatu dute. Mapa *Le Monde Diplomatique* aldizkarian argitaratu du Selçuk Demirel ilustratzaileak.

musikaren sektoreko lau erraldioen (EMI, Universal, Sony-BMG eta Warner-en) irabazien parte bat Apple konpainiak eraman du, iPod-aren fabrikatzaile eta iTunes programaren jabeak. Gauza bera gertatu da zinemako dozena erdi multinazionalekin: YouTube (“Google-ren bideo-inbutua”, Dan Schiller-en hitzetan) geroz eta indartsuagoa da. Eta telebista, publizitate jaitsierak zigortuta, banatu egin da kable eta satelite bidezko chunka kanal, telefono mugikorretarako programa eta webgunetan (Hulu, BBC, iPlayer, YouTube...).

ICANNen garrantzia

Izan bere edukiengatik zein bere eraso ahalmenagatik, anabasa honetatik industria berria azaleratuko da. Komunikazioaren teknologiek aldaketa aukera guztiak bereganatu dituztela dirudi. Harreman sozialak zabaltzeko bitartekoaren artean, Internet da kapitalismoak duen

tresnarik indartsuena. Horregatik da hain bortitza sarearen kontrola hartzeko borroka.

Borroka horretako pieza nagusietakoa ICANN⁽⁴⁾ da, Interneteko domeinuen izenak eta IP zenbakiak kudeatzen dituen irabazi asmorik gabeko erakunde estatubatuarra. Iragan udazkenean, AEBetako Merkataritza Departamentuak erakunde horren gaineko kontrol mekanismo batzuk eliminatu zituen, eta nazioarteko herrialdeen parte-hartze handiagoa onartu. Rob Beckstrom ICANNeko presidentek esan zuen erakundea “independentea” izango dela, ez duela inork kontrolatuko. Baina inuzentea litzateke pentsatzea Washingtonek erreminta erabakigarri horren gaineko boterea izateari uko egin diola, senatari errepublikar zein demokratek argi adierazi zuten moduan: “Kontrola galtzearen aurka

(4) <http://eu.wikipedia.org/wiki/ICANN>



AMAGOIA i ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea
1. solairua, B 04 lokala (ostirala-larunbata)

DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxekar.com
www.boutiqueaie.com

Tel. 943 336170 • 677 202122



gaude erabat”. Gainera, ejertzi-toak, agentzia federalek, gober-nuz kanpoko erakundeek eta zenbait enpresa pribatuk osatu-tako epaimahaiak hartu zituen domeinuen kudeaketari buruz-ko AEBen azken erabakiak. Enpresa horien ahalmena ez da nolanahikoa: Cisco korpora-zioak *router*-ak (sare informati-koak interkonektatzeko aparai-luak) banatzen ditu mundu osoan, Google bilatzaile eta bideo-hornitzaile nagusia da, Facebook-ek 400 milioi erabili-tzaile ditu eta Apple-k eliteak gehien maite dituen software programak fabrikatzen ditu. Horiei gehitu behar zaizkie Microsoft (“sistema operatibo-en enperadorea”) eta Intel (mikroprozes-a-tzaileen liderra).

“Mehatxuen” aurrean nagusi izaten jarraitu nahi

2005ean softwarearen eta Interneten merka-tua kontrolatzen zuten 25 enpresetatik 19 ziren estatubatuarrak. Zibergerrarako arma-gintzan nagusi dira: sateliteen %50 baino gehiago daude euren esku. Eskaintza gida-tzeaz gain, eskaeraren merkatuan ere buru dira: Wal-Mart (munduko minoristarik han-diena) eta General Electric (azpiegitura, zerbitzu eta hedabide ugari biltzen dituen multina-zionala) bezalako erraldoiak Interneteko sistema eta aplikazioen kontsumitzaile han-diak dira; euren beharrak aginduak dira, eta mundu osoan aplikatuko diren estan-darrak finkatzen dituzte.

Botere ekonomikoa mantentzeko funtsezkoa da sektore honen gaineko hegemonia izatea, eta AEBek nekez abandonatuko dute. Egia da Txinak, Hego Koreak, Singapurrek, baita Brasilek, Hego Afrikak, Errusiak edo Egiptok ere, geroz eta leku garrantzi-tsuagoa dutela. Egia da kapital ez-estatubatuar ugari pilatu dela Euro-pan, Asian eta beste leku batzuetan: Samsung, Nokia, Nintendo, Huawei, Tata, SAP, Telefónica, DoCoMo, América Móvil, Vodafone eta batez ere China Mobile, bezero kopururik handiena (500 milioi) duen teleko-munikazio enpresa. Egia da hegoaldeko herrialdeek (Mexikok, Indiak edota Txinak) geroz eta inbertsio-fluxu handiagoak isurtzen dituztela sarera. Eta hala ere, AEBetako agin-tariekin ez dute amore eman.

Gutxitu orde, komunikazioaren indus-triak geroz eta pisu handiagoa du AEBetako politikan. Ez da kasualitatea Barak Obamak



Steve Jobs
Apple enpresako lehendakariaren irudia, haren firma daramaten produktuez osatua. 2009 hasieran 26.000 milioi dolarreko irabaziak zituen konpainia estatubatuarra.

Google, IBM eta ITIC-ek osaturiko lobbyaren gomendioek gidatu zuten AEBetako gobernu berriaren ekonomia suspertzeko plana

(“Silicon presidenteak”, Mike Davis soziologoak deitzen dion moduan), hautatua izan baino lehen, Google-ko, IBM-ko eta Informazioaren Tekno-logien Industria Kontseiluko (ITIC, sektoreko arrain handi guztiak biltzen dituen erakun-de patronala) zuzendaritzen babesa lortzea. *Lobby* horren gomendioek gobernu berri-aren ekonomia suspertzeko plana gidatu zuten: errendi-mendu handia garatzeko diru-laguntza masiboak, osasun programen informatizazioa, komunikazioaren sektoreko industrialarien pribilegioen zabalkuntza...

Eta orain zer?

Sistema kapitalistaren ardatz bilakatzean, IKTen sektoreari ere eraso egin dio krisiak. Baina eraso ez dute denek berdin pairatu. Multinazional aberatsenak oparo jarraitu dute, Ciscok bezala (2009ko hasieran bere irabaziak 20.000 milioi dolarrekoak ziren), edo Micro-soft (19.000 milioi), Google (16.000 milioi), Intel (10.000 milioi), Dell (6.000 milioi) eta batez ere Apple (26.000 milioi dolar). Aurrei-kuspenek zioten irabazien parte bat lehiaki-deak erosteko erabiliko dutela, eta jada bete-tzen ari da.

Sektorearen inbertsio eta errendimendu potentziala agortzetik urrun dago oraindik. Krisiaren urtea izan arren, 2008an multimedia sektorean egindako gastua %2,3 (882.600 milioi dolarretaraino) hazi zen AEBetan, eta begirale batzuen arabe-ra, IKTen industriak hazkunde han-dia jasango du datozen bost urteetan.

Internauten grina ere ez du hoztu atzeraldiak, kontrakoa baizik: 2008an %55 hazi zen sareko trafikoa, eta 2009an %74. Programen eta sistema operatiboaren sektoreko berrikuntzek, aukera ematen diete multinazionalai jarduera soziokultural ugariren gain (irakaskuntzatik hasi eta nekazar-bio-teknologiaraino) euren eragina indartzeko, baita beste sektore batzuetako (medikuntza, energia...) irabaziak eskuratzeko lasterketa bultzatzeko ere.

Schiller-ek artikulu amaieran dioen moduan, “funtsean, kapitalismo digitala krisi denboraldietan garatzen da. Krisi garaiek, era berean, gizarte kargaren banaketa desberdina sortzen dute, dominazio modu berriak; baita, zorionez, berreraikitze eta erresistentzia aukera berriak ere”. Nork baliatuko ditu, eta zertarako? ■



Argizari museoak

G

ipuzkoako Foru Aldundiak ez zuen dirurik gastatu Urolako trenaren zerbitzua berritzeko.

1985ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen Urolako trenbidea, Lurralde Historikoa-ren Legearen ondorioz. Orduan, trenaren ordeztu autobus zerbitzua jartzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Gaur egungo autobus-linea bihurria. 60 urtean zerbitzuan izan ondoren, 1986ko uztailearen 14an bere azken bidaia egin zuen Urolako Trenak eta 1988ko otsailaren 5ean, bideragarritasun arazoak zirela kausa, behin betiko ixteko erabakia hartu zen, herritar asko eta asko trena kentzearen aurka azaldu baziren ere. Geltoki gehienak abandonaturik jarraitzen dute gaur egun, eta Azpeitikoan Trenaren Museoa jarrita dago. Toki bakoitzaren azpiegitura eta zerbitzuen eskaintzaren garrantzia azpimarratzen da orain, baina autoaren erabilerak gora egin du nabarmen, eta autoz egindako joan-etorriak bakarka egiten dira orokorrean. Eskaintzen diren erraztasunak garraiobide zehatzen erabilera errazten omen du, baina urri sumatzen dut nik eskaintza hori. Eta arraroa ni naiz hemen, autorik ez dudalako. Gaur egun ez zela horrelako erabakirik hartuko ez da arrazoi nahikoa, garai horretan garraio publikoaren garrantzia ez zela gaur egun bezala ikusten. Garraio kolektiboaren erabileraren alde jende pila zebilen kontzientziatua orduan ere, eta ez zuten ezeren esperantzarik. Jaramonik ez zieten egin. Atzera egitea posible balitz, baina ezin da. Ana Botella andreak, Aznar presidente ohia-ren emazteak, Lur Planeta gizakiaren zerbitzura dagoela esan du, eta ez alderantziz. Bere buruarekin aritu beharko litza-teke proban. Ezinegonaren garbitzaile-jende guztiarekin bezala. Txorakeria gutxi hemen,



José Luis Padrón

Rozas

Urkiza

Urolako trena kentzea erabaki zuten agintari zigarro astun erretzaileek, dauden tokian daudela, ez dute barkamenik. Barkamenik ez. Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak Museoa sortu zuen, trenaren inguruko museo tematikoa egitea erabaki zuen, Trenaren Euskal Museoa, Azpeitian. Trenaren museoak kotxetegia, bagoi eta lokomotor

toz goraino dago. Jarraio aparkatu zuten azkenean. Ni behintzat beldurtu egiten naute ia-ia museo denek, biziki beldurtu, mugimenduaren kontra lotsagabe hartutako erabaki okerren exhibizionismoarako eraikinak iruditzen zaizkidalako, paregabe-ko estafa baten zaindari trebeak. Estilo hori dauka Bilboko Guggenheim museoak ere, agintariak agindutakoa guztiz bestera gertatu baitzen gauza. Euskal kulturaren birsorkuntza bultzatzeko elementu estrategikoa moduan aurkeztu zen, eta lehenengo egunetik etorri zen euskal artistekin eta artearekin berarekin etsaitua. Urdaibain, Guggenheim berri bat eraikitzea planteatu da. Zibilizazio faktore bat da. Txorotasunak zenbat behar duen eta horixe asmatzeko gauza gara gizakiok: alkoholik gabeko garagardoa, light tabakoa, pospolo bustiak eta argizari museoak. Oraintxe ibili dira Marichalar jaunaren irudia paradisutik kentzen. Hutsarekin ordezkatzan. Bizitzaren kontrako umiliazio proba bikaina iruditzen zait gordetzen dutela museoek barrenean, eta nahita egindako egintza dirudi gainera. Gauzak nondik geldi eusteko gogo etengabea, iraultza didaktikoen museoetan bezala. Belaunaldi berriak aipatu dituzte nire bi ttakunkideek. Arnasaren liraintasun guztia galtuta, tris-teak eta gaizki irudikatutako panpina tonto horien antzekoak izango gara bihar haien-tzat, dena heriotzara murriztu duen argizari museo batean. ■



Urdaibain, Guggenheim berri bat eraikitzea planteatu da. Zibilizazio faktore bat da. Txorotasunak zenbat behar duen eta horixe asmatzeko gauza gara gizakiok: alkoholik gabeko garagardoa, light tabakoa, pospolo bustiak eta argizari museoak



Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Ondorioetat

Ezker Abertzalearen estrategia politikoa-
ren barne eztabaidaren ondorioak
eskuarteant ditugu. Espekulazioak ordea
ez dira erabat etengo, *Zutik Euskal*
Herria ebazpenak interpretaziorako
abagune batzuk zabalik uzten baititu.

Aurreko batean ETaren azken komunika-
tuaren ondotik, kazetari batek komunikatua
kritikatu zuten alderdiei berau irakurri ez
izana eta horrelako berrien aurrean egin
beharreko hausnarketa aldeztu aurretik prest
izana aurpegiatzen zien. Litekeena, baina
bestaldera ere aplikagarria, ETak esaten
duena esanda ere, balorazio baiko-
rra egiten duenik ere bada. Ezker
Abertzalearen barne eztabaidarekin
ere antzeko, bertan parte hartu
dutenak asko dira, are gehiago egon
ez direnak eta are gehiago txostena
irakurri ere egin ez dutenak.

Zenbaitentzat ordea, hau ez da
oztopo iritzia emateko, eta hemen
hiru faktore azter genitzake behi-
nik behin. Fedearen faktorea
dugu batetik, zerbait berria esan-
go dutenaren fedea dutenak eta
urte eta prozesu ezberdinen
poderioz fedea galdu dutenak.
Bigarrena itxarobideena litzateke,
zerbait espero duenak zerbait gal-
dezake, eta itxarobiderik ez due-
nak ez du ezer galtzen, agian irabazi.
Hirugarrena ezagutzarena da, jakinaren



JUDITH FERNANDEZ

gainean daudenak eta jakitun moduan
dihardutenak.

Ezagutzaren gailentasuna agerian utzi nahi
izan dute batzuek, baikor edo ezkor gara
badakigulako zer dagoen sukaldean. Baina
fedea kontua ere bada batzuetan, eta “uste
dut” eta “sinetsi nahi dut” errepikatzen dute
“jakin badakit” baten ordezt. Halere, itxarobi-
deak izan daitezke ondorioen balorazioen
norabidea gehien baldintzatu dezaketena.
Aralarren *remake* bat espero dute batzuek, eta
itxarobideak horiek badira Jone Goirizelaia
ez du arrazoirik izanen eta “hotz” utziko ditu

asko eta asko. Itxarobideak ziklo
berri baten lehen pausoari lotzen
badira aldiz, seguruenik iruzur egin
diotenaren sentipena askoz ahula-
goa izango da.

Ondorioek hortaz, zerbait argi
dezakete euskal panoraman, baina
eragile batzuen ondorengo praxia
ikusi arte, intentzio adierazpenen
uretan gabiltza. Barne erresisten-
tziak denek dituzte eta etxetik eredu
gisa ikusi dira Irlandako prozesua
eta orain hain modan jarri duten
Hegoafrika. McGuinness IRAko
buruzagi ohiak, IRA Continuityren
atentatu baten aurrean dei egin zien
herritarrei irlandar poliziarekin
kolaboratzeko, traidore deituz era-

kunde armatuko kideei. Prezio altua dudarik
gabe, han eta hemen. ■

« McGuinness IRAko buruzagi
ohiak, IRA Continuityren atentatu
baten aurrean dei egin zien
herritarrei irlandar poliziarekin
kolaboratzeko, traidore deituz
erakunde armatuko kideei. Prezio
altua dudarik gabe, han eta hemen



HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Gertatua, aste honetan
ekarri digu gogora Lasar-
te-Oriako Udalak babes-
tutako alde bakarreko biktimei egin omenal-
dian. Eta urte hartako uztailaren hogeita
zazpian Donostiako Amarako tren geltokian eztanda
egindako lehergailu batek hildako Begoña Urroz hau-
rraren amak jaso du bertaratutakoen beroa. *El Pais*ek
argitaratutako kronikak hartan zauritutako gaztearen
izena dakar, Valeriano Bakaikoa Azurmendi gure lagun
minarena eta etxe honetako beteranoarena hain zuzen.
Ez dut hura gogoratzen eta ez diot inoiz Balereni deus
entzun. ETari egotzi diote hura inongo ezbairik gabe.

1960. urtean

Ezinbestekoa da “Nola eraiki gezur
bat” irakurtzea Izaronek gunean.
Bertan Iñaki Egañak argiki eta xehe-

tasunez beteriko idazkien adierazten du gertakizun
hartako gorabeherak dokumentatuak dauzkana. Ezin
sinetsi tamainako manipulazioa, jakin gabe eraiki ezin
litekeena. Gure historia hurbilenaz horrelakoak egite-
ko gauza denak, zer ez digu egingo bereaz? Jada kan-
poan daukaten Roldanen aholkularitzaren emaitza
dirudi, gezurra gezurraren gainean eraikiak bidea egin
dezan asmatua. Merezi luke Izaronek Telecincora
eramatea, audientzia belarri gorra sendatu dadin eta
Lasarte-Oriako Udalekoak auskalotzen ikusteko. ■

Paula Kasares

IRAKASLEA

Hedabidegabekeriak

LEHEN BIDEGABEKERIA: ia zazpi urte joan dira Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuela. Euskal Herriko euskaltzaleon bihotz-buruak inarrosi zituen bidegabekeria horretan auzipetuak egunotan aritu dira epaitzen.

2. HEDABIDEGABEKERIA: ia hogeita bi urte Iruñerrian euskarazko uhinak zabaltzen eta euskaldunon bihotz-belarriak lotzen diharduen Euskalerrria Irratia lizentzia eskuratzeko lehiaketa publikoetatik nahita baztertua izan da. Auzia epaitegietara eramanda, duela bi aste eman dute jakitera lizentzia banaketa zikin hura baliogabetu duen epaia.

3. HEDABIDEGABEKERIA: diru laguntzak eskasak eta berantak izan dira eta Nafarroako euskarazko hedabideek prekarietate gorria dute bizilege. Orain urtebete Tipi-ttapa Telebistak, Bortzirietarako eta Malerrekarako euskarazko tokiko telebistak, itxi behar izan zuen. Bitartean, Nafarroako erdarazko bertze telebistek milioi bana euro jaso izan dute kontu publikoetatik. Baina nork erran behar zigun makurrena oraindik etortzeko zegoela.

4. HEDABIDEGABEKERIA: diru laguntza publikoa hitz emanda bazegoen ere, krisi ekonomikoak ematen duen aitzakia ederra



JOSU SANTESTEBAN

baliaturik, azkenean, 2009an Euskarabideak euro xentimorik gabe utzi ditu Nafarroako euskarazko hedabideak (Euskalerrria, Xorroxin, Karrape, Beleixe, Esan Erran eta Aralar irratia; Xaloea telebista; eta *Tipi-ttapa*, *Maillope*, *Pulunpe* eta *Guaixe* aldizkariak, besteak beste). Euskararen Foru Legeak indarrean daramatza 23 urteetan behin ere ez da hala korik gertatu. *Hedabidegabekeria* ez ezik, *Euskarabidegabekeria* ere bada hau.

5. HEDABIDEGABEKERIA: Nafarroan itzaltze analogikoak eskaintza digital publikotik kanpo utzi du ETB. Sanzek hasieran errespetu instituzionala aipatu zuen; gero, arazo teknikoak aitzakiatzat hartu; orain, finantzamendu ekonomikoa du arazo. Kontua da euskarazko telebistarik gabe geratzeko bidean gaude. Bidegabekeria hau zuzentze aldera *Mugarik gabeko telebista* kanpaina paratu dute abian. Milioi erdi sinadura behar dira ekimen legegile herritarrak bere eskaera Espainiako Kongresura eraman dezan. Helburua sinplea da: Estatuko Gobernuak —bera baita Erregioetako eta Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunean hartutako konpromisoen erantzulea— hizkuntza bera duten erkidegoen arteko koordinaziorik eza konpondu eta telebistak ikustea ahalbide dezala. Hala biz. ■

Euskarazko telebistarik gabe geratzear
gaude. Bidegabekeria hau zuzentzeko
Mugarik gabeko telebista kanpaina abian
da. Milioi erdi sinadura behar da
ekimen legegile herritarrak eskaera
Espainiako Kongresura eramateko

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Izenak eta hitzak nondik nora sortzen diren eta daramatzagun, beti iruditu zait gai deigarria.

Adibidez, pertsona izenen kasuan, Hegoaldean, nola erabaki behar izaten duen Euskaltzaindiak Joar bat edo Amets bat neska ala mutila (soilik!) izango den. Hitzen kasuan berriz, azkenaldian gehienak gailu teknologikoen bidez heltzen zaizkigu; izan DVD, Airbag, Ipod edo Software bezalakoak; baita “dei galduak” eurak ere, egungo zentzu ezagunean segapotoek (!) ekarri dizkigutenak. Baina ederra-

Kilokotxo

goak dira, nabarmen, Andu Lertxundiri “lurmendu” hitzaz edo “ojalietan egon” esamoldeaz irakurriak; edo, berrikiago, Piter

Ansorenak “txutxu” hitzaz azaldutakoak.

Bada, nago gure txikia hitz batez erditu berri ote den, hiru urte besterik ez dituela. Txoko honetan uzten dizuet opari: hitza “kilokotxo” da eta “maite zaitut eta maita nazazu” esan nahi du aldi berean; elkarrenganako maitasun aldarri galanta. Berez Porrotxen “baina nik mimotxoak behar ditut, Pirritxi!” leunaren parekoa, baina laburretik. Hitz itzela. Kilokotxo. ■

Bagoirik ez zeraman tren

Bazen behin herri bat modernoetan modernoena zena. Modernotasunaren izenean, era guztietako abiadurak maite zituen herri hark. Telebista eta ordenagailuentzat, zuntz optikoaren paradisuari bizi nahi zuen. Hara eta hona higitzeko, autobide, aireportu eta trenbiderik lasterrenak proiektatzen zituen.

Hitz egiteko ere, presa zeukan. Ideiak, kontzeptuak eta era guztietako pentsamenduak azaltzeko, akronimoekin moldatzen zen. Bertako gizartearen hitz-gakoak ziren: HTTP, ADSL, ViaT, TAO_2.0, GPS, ISO... Erreberentzia handi batekin hartzen ziren horiek guztiak bai ministroen biletan, bai eskoletan, baita auzokideen eskailera-batzarretan ere: labur eta zehatz hitz egitea ekartzen baitzuten horiek.

Akronimoen zerrenda amaigabearen baitan, bazen bat guztiz famatua: AHT izenekoak. Baina, gainerako akronimoekin ez bezala, horrekin eztabaida handia zegoen gizartean. Adostasunik ez zegoen haren inguruan. Nahiz eta ezaguna izan, oso, haren esangura: Abiadura Handiko Trena.

BAGOIRIK EZ

AHT izenarekin bataiatu eta denen ahotan zebilen tren guztiz laster hura diseinatu zenean, lokomotorea baino ez zuten proiektatu. Hiru koloretako azala asmatu zioten diseinatzaileek. Eta, agintariak hala eskatuta, hamazazpi leiho jarri zituzten: hiru biribil, sei karratu eta zortzi hexagonal.

Tren guztiz laster hura diseinatu zutenean, tunela hor eta tunela hemen, zubia



INIGO AZKONA

hor eta zubia hemen, trintxeraz eta lubakiz bete zuten lurralde osoa.

Halere, ez zioten bagoi bakar ere diseinatu obra erraldoi hura baliatu behar zuen tren bizkorrari. Lokomotorea bai, baina bagoirik ez. Ordekan, hirurehun kilometroko abiadura har zezakeen makina horrek; malda behean, hirurehun eta hemeretzi. Baina, bagoirik ezin zuen eramane.

Herritarrek galdetzen zuten ea noren buruan sar zitekeen halako obra bat egitea eta bagoirik ez edukitzea trenak ez herrikideentzako, ez ganaduarentzako ezta gari-zakuak garraiatzeko ere.



Herri galdeketak egin zituzten
herritarrek orduan, informazioa
biltzeko. Kartelak eta afixak itsatsi
zituzten hormetan, jendeak bertan
idatz zezan bagoirik ezari buruzko
azalpena, esplikazioa. Erakusketa
erraldoi eta ibiltaria antolatu zuten.

Baina, alferrik: ez zegoen
ezer argitzerik



ELKARRIZKETA MINISTROAREKIN

Herri galdeketak egin zituzten herritarrek orduan, informazioa biltzeko. Kartelak eta afixak itsatsi zituzten hormetan, jendeak bertan idatz zezan bagoirik ezari buruzko azalpena, esplikazioa. Erakusketa erraldoi eta ibiltaria antolatu zuten. Baina, alferrik: ez zegoen ezer argitzerik.

Halako batean, garraio-ministroarekin elkarrizkatzeko deliberoa hartu zuten herritarrek. Ez zen erraza izan audientzia antolatzea, badakizue: ministroen agenda beteak... Zortzi ilberrian, zortzi aldiz atzeratu zen enkontrua.

Azkenean, heldu zen, ba, heldu, bilera-eguna. Traje beltzarekin jantzi ziren gizonak, ministroaren aurrean dotore egoteko, errespetua adierazteko. Limoi-kolorezko gonarekin bezitu ziren emakumezkoak, agintari guztiz txit eta gorenaren aurrean apain agertzeko, begirunea azaltzeko.

Bulegora sartu zirenean, mahai handi baten ingurura deitu zituen ministroak, kaoba beltzezko mahai biribil ezinago ederraren birundara. Mapa handi bat ireki zuen haren gainean, eta erakustera eman zien herritarrei trenaren ibilbidea: tunelak, zubiak, lubakiak... dena ageri zen mapa hartan.

Begietara so egin, eta herritarrei galdetu zien ministroak:

– Bagoiak... geltokirik batere ez baitu trenak, zertarako behar dituzue horiek? ■



irudia:

Antton Olariaga

Ane piratari jarriak

I

Zer da beldurra? Zer da denbora?
Zer, kimioa tantaka?
Zure ohea barku bihurtu
belak zabaldu ta hanka!
Koloretako zapia jantzi,
lotu egurrezko hanka,
tira sokari, igo mastara,
eman haizeari branka...
mundu berrien bila joan zaigu
maitasunaren pirata.



ANDONI OTAMENDI

IV

Ez gara hezur, ez gara mami:
ura gara, soilik ura!
nola aingurak labaintzen diren
itsasoetan barrura.
Bi begi beltzak bi amu dira
bi galdera, bi lotura
esanak sare; izana, berun
irribarrea, aingura...
gure bihotzen hondoa jo du
eta bertan geratu da.

II

Eskuak hoztu, oinak isildu,
kolorez hustu azala;
ilea hosto gorri bihurtu
zainetan sua doala;
aho morean hortz zartatuak,
betazpietan itzala...
Ta bat-batean irrifar batek
irentsi du ospitala...
Munduarekin halere pozik
baldin bazeunde bezala.

V

Orain bandera haizetan dago,
orain hautsi da anfora;
itsasontziak ihes egin du
zeruertzetik kanpora.
Hautsi zaizkigu ordulariak,
traidore bat da denbora!
Zure izena oihukatzen dut
olatuen erritmora...
ta pentsatzen dut nire pirata
irribarrez egongo da.


III

Aita ta ama ohe ertzean
esertzen zirenerako
oinekin ezin ta begiekin
egiten zenuen salto.
Bi ezpain ertzak gora begira:
ilbehera gau beltzerako,
haurrak sehaska bat eraiki du
bere gurasoentzako...
irribarrea kulunkatzea
errazagoa delako.

VI

Irribarre bat dut ezpainetan
itsasoari kantari;
irribarre bat dut ezpainetan
ta begietan Kantauri;
irribarre bat ipini diot
malko gazi bakoitzari;
irribarre bat ausardiari,
minari, maitasunari...
Zenbat irrifar zor dizkiogun
zure irribarreari.

DOINUA: Itsasoari begira.




Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Kulturgintza

Noren lepoa moztuko dute aurrekontuetako artaziek?

Guraize hotsa entzuten hasi da azkenaldian kulturari zuzendutako diru publikoetan: Gipuzkoan, Gaztemaniak! entzuleek salbatu dute, baina dFeria bertan behera geratu da. Bilbon aurtengo Zinegoak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik gabe jarri da martxan. Nafarroako Antzerki Eskolari urrian ebaki zizkioten irakaskuntzatik jasotzen zituen sosak eta kulturakoak larri murriztu...

GORKA BEREZIARTUA



... ETA SEI EDIZIOREN ondoren, agur esan du Mundua Tolosan jaialdiak. Adibide solteak dira, elkarrekin loturarik ez dute, eta kasu bakoitza aztertuz gero, ziur ñabarduretarako tarte handia dagoela. Baina distantziarekin so eginez gero, norabidea ez da zaila antzematen: krisi ekonomikoak kulturaren eragiten ari da, eta ekonomiaren gainbeherak noiz arte iraungo duen ez dakigunez –are gutxiago hondoan non dagoen–, pentsatzekoa da tankerako albiste gehiago etor daitezkeela datozen hilabeteetan.

Egongo da ezkortasunerako motiborik ikusiko ez duenik. Horien artetik ez gutxi, 1980ko hamarkadako nostalgikoak, pentsatzen dutelako orduko ekonomiaren egoerak sortu fenomeno (kontra)kulturalak itzuliko direla –arropa berriz, espiritu berarekin– XXI.eneko bigarren hamarkadan. Eta aferari hurbil-hurbileko plano batetik begiratzuz, logika ere izango luke: herriaren ordezkariek ez dute sosik kulturarentzat, ergo guk, herriak, sosik eduki gabe ere musika, antzerkia, literatura, artea, zinema... egingo ditugu. Orain, lehen baino libreago, popularrago, zirkuitu publikoen homologazioa bilatu beharko ez dugunez.

Polita, baina miopea. Testuinguruaz ahazten baita: 1980an Franco oraindik erabat hoztu gabe zetzan, oraindik hirugarren sektoreran erabat bira eman gabe geunden, oraindik baretu gabe zegoen 77ko punk britainiarraren eztanda... Alegia, ez zela gaurko lur berean lehertu ekonomiaren euri-jasa hura. Orduan landare berriak elikatzen lagundu bazuen, gaur ito egin ditzake azpian harrapatzen dituen bizidun batzuk.

Sustrairik bota ezinda

Baina ez gaitezen pesimista izan, badaude-eta baikor izateko arrazoiak. Gaztemaniak! programa ber-

tan behera gera zitekeela zabaltzen hasi eta zaletuen erreakzioa bikaina izan da: mobilizazioari esker lortu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak programa horretan gastatzen zituen 20.000 euroak ez joatea beste nora-bait. Galdera ordea, atzamarra barrurago sartuz ere egin liteke: alegia, mobilizazioek erakutsi al dute Gaztemaniak! salba zitekeela, ala Gaztemaniak!-ek erakutsi du, urte hauetan egindako lanarekin, salbatzeko moduko egitasmoa zela? Diferenteak baitira bata eta bestea.

Beste modu batera esateko: opor-tasun urteetan diruz lagundutako zenbat egitasmok ez dute inon sustrairik bota? Zein herritarri galdetuta programatu dira gure herri eta hirietan kultur ekintzak? Antton Lukuk *Euskal kultura?* saiakeran (Pamiela, 2009) eman ditu horri buruzko iritzi arrunt interesgarriak. Hara pasarte bat: “Jende normalak, inkultuak, ederki daki hori guzia [kultur eskaintza] ez dela beretako egina eta artista profesional horiek ikusle profesionalak badituztela, aitzinatua, beren burua horretan ezagutzen dutenak. Formula asasi- noa badute holakoek afitxa baten aitzinean gertatzen direlarik: ‘Ontsa da hori maite duenarentzat’. Erran nahi baita ez zaiola burutik pasatzen ere horra joatea”.

Zer egin “txiki-ertainak” salbatzeko?

Baditugu kontraesan baten bi muturrak: batetik, kulturari zuzendutako buxet publikoetan artaziak sartzea ez da inolaz desiragarria; bestetik, herritar guztien diruarekin finantzatutako ekimen batzuek ez dute lortzen herritar horien arretarik.

Orain bai, ñabarduretan sartzeko ordua da. Bi mailatan banatuko ditugu kultur egitasmoak: “txiki-ertainak” —herriko edo hiriko bizilagunei zuzendutakoak— eta

Krisiarekin egitasmo “handi”-ak salbatuko direlakoan nago, “txiki-ertainen” kaltez

Herritarrek erakusten ez badute interesatuta daudela —Gaztemaniak!— en aldeko mobilizazioa eredu— egitasmo ugari desagertuko da

“handiak” —hiriburuetako kultur zentroak, jaialdi handiak... Kanpoko jendea ere edo batez ere erakartzeko gaitasuna dutenak—. Esango nuke azken horiek bakarrik jasotzen dutela hain modan dagoen “estrategi-ko” izena kultur programa publiko- etan, eta ez preseski balio kulturalagatik, ezpada hiriei egiten dioten ekarri ekonomikoagatik. Eta ez da harritzekoa, horiek ere lehen bezain airoso ibili ez arren, kolokan ez egotea. Adibide bat: 2009an Artium museoaren aurrekontuaren %56 Arabako Aldundiak finantzatu

zuen; gehitu horri Eusko Jaurlaritzak emandako 700.400 euro eta Gasteizko Udalaren kutxetatik ateratako 300.000. Nahi izanez gero ez da dirurik falta kultu- ra sustatzeko. Baina, krisiarekin halako proiektuak, “handi”-en taldean sartu ditu- gunak, salbatuko direlakoan nago. Gaine- ra, azken urteetan kultur-azpiegiturak hainbeste ugaritu direnez, orain horiek elikatzea beste erremediorik ez dago. “Txiki-ertainak”, tokian tokiko herritarrei zuzendutakoak, publiko masiboa erakartzeko gai ez direnak —eta euskal kultura, oro har, parametro horietan mugitzen da— ez dute interesik agintari askorentzat. Lehen ere ez, baina ez zeukaten moztan hasteko aitzakiarik.

Beraz, herritarrek erakusten ez badute interesatuta daudela —berriz ere Gaztemaniak!-en aldeko mobilizazioa eredu— egitasmo ugari desagertuko da aurrerantzean ere. Lehendik zetorrena baino bertikalizazio handiagoa da, herrita- rra produktu kulturalen kontsumitzaile soil bihurtzen duena, inoiz ez erabakiak hartze- ko subjektu. Eta bien bitartean, ez al da harritzekoa aurrekontuak arrazionalago kudeatzeko ia inork prozesu parte-hartzaie- rik proposatu ez izana? ■



**UROLA
JATETXEA**

FERMIN CALBETON, 20 • 20003 DONOSTIA
Telf: 943423424 • Fax: 943 424 424 • urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com

Zinema

Dantzan joango dira tabuak

Saioa, Iñigo, Ana, Dani, Urtzi, Alberto, Zaloa, Haritz, Joannes eta Mikel: Despertar los Sentidos dantza taldeko kideak. Oriñongo hondartzara (Castro, Espainia) joan dira ikuskizun baten prestatzeko. Beraiekin, John Andueza zuzendaria buru, *Simplemente* filmeko ekipoa, dantzarien egunerokoa grabatzeko asmoz. Joan den astean estreinatu zuten down sindromedun gazteak protagonista dituen dokumentala.

GORKA BEREZIARTUA

ETA NOLA estreinatu gainera: Donostiako Victoria Eugenia antzokia beteta otsailaren 16an, filma bukatu eta protagonistak agertokira azaldu zirenean: ikusleen txaloak, zaparrada desordenatua hasieran, dantzarako erritmo bihurtu ziren pixkanaka. Zer gehiago behar zuten Despertar los Sentidos-ekoek? Gehien gustatzen zaiena egiten bukatu zuten: dantzan.

Baina bukaeratik hasi gara kontatzen, eta garrantzitsuena lehenago etorri zen: 80 minutuz taldeko partaideen egunerokoan sartu ginen *Simplementer* esker. Pelikulak beraiei ematen die ahotsa –baita kamera ere, pasarte batzuetan–, eta talde-kideek ederki baliatzen dute gai ugari buruz hitz egiteko. Gazteak izaki, bikote-harremanketarako toki handia hartzen dute elkarriketetan; familiaz berba egiten dute, eta beraien kabuz ibiltzeko daukaten gogoaz; lan munduaz; homosexualitateaz; Jainkoaz; down sindromea bizitzeko duten moduaz. Eta barre egiten dute –asko–; eta negar; eta arazoak sortzen dira, eta konponbideak. Dokumentalak *reality-show* baten kutsua har dezake batzuetan, komedia batena beste batzuetan, baina etiketen gainetik, lan harrigarria da. Harrigarria, protagonisten etorriagatik eta kameraz ahaztuta etxean bezala jokatzeko duten gaitasunagatik.

John Andueza zuzendaria izan zen harritzen lehena. *Bilintx* film laburrari sari bat

**Simplemente filmak
aurreiritzi asko puskatzen
lagun dezake, eskaintzen
duen begirada urrun
baitago ohiko
beraztasunetik**

eman ziotenean ezagutu zituen Despertar los Sentidos-eko kideak, eta haiekin trago bat hartzera joanda, berehala adierazi zioten gustura agertuko lirakeela film batean. Esan eta egin: filmatzen hasi zirenean nola ordainduko zuten argi ez bazeukaten ere, Puxtarri eta Lotura Films ekoiztetxeen laguntzarekin aurrera atera zen proiektua.

Hasierako gidoirik gabe egindako dokumentala da, ia 40 orduko filmaketetan protagonistek eraiki duten istorioa. Eta emaitzak aurreiritzi asko puskatzen lagun dezake, filmaren begirada urrun baitago ohiko beraz-

tasunetik eta politikoki zuzen izatek. Askorentzat tabu izan daitezkeen gaiak natural-natural aurkezten zaizkigu –taldeko mutil batek aldizkari porno gay-ak bilatzeko daukan grina, barbarako–; gainera, dantza ikuskizuna prestatzeko lanean, taldekideen gaitasun sortzaileak azpimarratzen dira, izan ditzaketen mugen gainetik jauzi eginez.

Filmaren ibilbidea ez da Victoria Eugeniakoan bukatuko: martxoaren 3an Gasteizko Dendaraban izango dira; 18an Santanderren (Espainia); eta 28an Bilboko Arriaga antzokian. Emanaldi guztien aurretik koreografia eskainiko du Despertar los Sentidos-ek. Eta, gauzak Donostian bezala badoaz, ez litzateke harritzekoa filmaren ondoren ere protagonistak dantzan ikustea. ■



Bertso jarriak

Aitor Albistur

«Eskema mentala osatzen denbora gehiago pasatzen dut bertsoak idazten baino»

Apustu bitxi baten berri izan genuen, oso isilean pasatzen den alorrean, bertso jarrietan: 2009ko hiru sari nagusietan aipamena lortu behar zuen, eta hiru sariketa irabazi. Aipamen bakarra falta izan zitzaion bertso koadrilaren kontura Zuberoa jatetxera joateko. Apustu horrek balio dezake Aitor Albistur aurkezteko: jartzaile petoa, 28 bertso sorta ditu idatzia, eta horiekin 13 sari ditu irabazia bertso jarrietan. Saririk atera nahi baduzu, irakurri nola jartzen dituen berak.

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkia: Lander Arbelaiz

Bertso-jartzailea duzu aita. Zuretik ezpala?

Orokorrean bertsozaletasuna aitarengandik (Julian Albistur) datorkit. Berak bere kabuz ikasi zuen, Amurizaren liburuarekin. 1984an herrian izan zen Kilometroak jaia, eta bertsoak jarri zituen. Herriko beste batek musikatu, eta abestia atera zen Kilometroetan lehenengo aldiz. Horrela hasi zen bere bidea jorratzen. Eta betikoa “zuk ere egin beharko zenuke...”. Horrela, 1992an idatzi sorta bat eta Lazkao Txiki saria irabazi nuen. Baina ez nuen bertso munduko ezertxo ere ezagutzen. Sari banaketa hartan ezagutu nuen Aitor Sarriegi, bigarren egin zuena. Orduan ezagutu, eta gero konturatu naiz nor zen Sarriegi. Hurrengo urtean Zapiain Anaiak sarian parte hartu nuen eta bigarren saria irabazi nuen. Ondoren nire urte ilun batzuk iritsi ziren idatzizkoan, Jon Ansa ezagutu nuen, bertso eskolan hasi, bat-batean gehiago zentratu eta Gipuzkoako Txapelketan atera... 2001etik duela pare bat urte arte ez dut ezer idatzi.

Bat-batekoa eta idatzizko jarduna kontraesanean daude, edo elkarren osagarri dira?

Elkarren kalteko ez behintzat! Ni paperetik hasi nintzen, eta beno, kosta zitzaidan e, bat-batean ausartzea! Zeren, paperak badakizu zer daukan, buelta eman, bestea, “hau jarriko dut...”. Eta kolpetik heldu bertso eskolara eta besteak entzun di-da, eta kontxo, muga mental bat bezala sentitzen nuen,

Bertsopaper nobelazalea

“Bertsopaperetan, literaturan bezala dago: badira olerkiak, badira eleberrak eta badira saiakerak. Ez naiz saiakera estilokoa, nik bilakaerarik gabe ez dakit sortak jartzen, alegia, ‘ordenagailuari 8 bertso’, ezingo nuke, galdu egingo nintzateke. Gehiago naiz nobelazalea bertsoak jartzerakotan, edo horretan saiatzan naiz”.

“hau nola botako dut?”. Pixka bat askatu arte izan zen. Badakit jende asko dagoela ez dena ausartzen bat-batean beldur horregatik, paperak babes handia ematen duelako.

Buruak desberdin funtzionatzen du bat-batean edo idatzian ari denean?

Erabat diferente. Idazten hasi aurretik, askotan denbora gehiago pasatzen dut eskema lantzen, bertsoak osatzen baino. Eskema hori lantzen, edo gaiaren trataera, edo hitz klabeen bila, erreferentzia bila... nire eskema mentala osatzen. Zer gai idatziko dut hurrena ARGIA-rako? Hori izango da nire trauma hurrengo hiru asteetan. Gaia aukeratu dudanean, hasiko naiz gai horren erreferentziak bilatzen, gerturatzen, eta eskematikoki bertso bakoitzean esango dudana dosifikatzen: lehen bertsoan xuabe, kokatu irakurlea, bigarrenean ez dakit zer ekarpen egingo dudana gero bosgarren edo seigarren bertsoan erabili ahal izango dudana...

Teknikoki korapilo handitan sartzen zara: oso neurri estuak, edo 16 errimadun habanerak... Jon Martinek 2009ko Gipuzkoako finalean errima aniztun habanera erabili zuenean, pentsatu nuen: zergatik ez egin 16 errima berdin? eta horrela suertatu zen. Ea gai naitzen hori egiteko, eta ulergarriak diren. Eta hor bai, bertso bakoitza egiten pasa dut, beste sorta oso batzuk egiten baino denbora gehiago. Astakeria mental handi bat izan



zen, eta ni gustura geratu nintzen, baina jende batek esan zidan kargatuegiak zirela. Eta ez naiz horren zalea.

Apustuak [hiru sariketa eta hiru aipamen irabaztekoa] izan zuen bere pisua horretan: pentsatu nuen zerbait inpaktantea egitea, eta ikus zedila zer lan zegoen sorta horien atzean. Eta horrela, behar bada ondorioa izan zitekeen saria lortzea... Hori, nire erronka pertsonalari gehituta.

Gehiago korapilatzerik badago idatzizkoa?

Idatzizkotan oraindik badago zer korapilatu, dudarik gabe. Baina ez nago ados bertsoa horretara mugatzearekin. Nik idazten dut zerbait esateko, eta noski, hain muga ertsi horrekin lortuko dut nahi dudan hori esaten edo ez? Eta nik esan egin nahi dut, behar bada formato batean, zailtasun extra bat eskatzen duena. Baina ez helburu bezala, baliabide bezala baizik.

Pasa izan zait beste sorta bat idazten hasi, egindakoa irakurri eta esatea "zer ari naiz?", lehen esandako eskema mental horretatik oso urrun. Esaldiak korapilatuak, hainbeste oinekin... Zakarretara bota eta kito!

Oso teknika zorrotza duzu. Zein dira zure buruari jartzen dizkiozun arauak?

Ahalik eta hitz lauenekin esaten ahalegintzen naiz. Hori da nire oinarrietako bat. Ulerterrazagoak egiteko. Ez zait gustatzen dena metaforikoki, edo hitz arraroekin osatzea. Ahalegintzen naiz hitzak ez moztzen, edo sinalefa fortzatuak ez egiten, baina hori ere bilakaera bat da. Aurreko sortak irakurtzen hasi, eta ikusten duzu zeri emango

Erretereria-Orereta, 1976. Ingeniaria da eraikuntza enpresa batean. Bertso jarriak eta bat-batekoak egiten ditu Aitor Albisturrek.

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

10

www.nafarroakotxapelketa.com

bi Ldu

Finalaurrekoak:

Otsailaren 27an

IRURITAko

Gizarte Bilgunean

17:30ean

Iñigo Olaetxea

Xabier Legarreta

Julen Zelaieta

Iñigo Ibarra

Iñaki Aleman

Migel Mari Elozegi "Luze"

Nafarroako
Bertsuak
Elkartea



Laguntzailea:



argia

zeniokeen gaur beste buelta bat, nola esango zenituzkeen gauzak garbiago. Etengabeko hobekuntza da, belarrira min egiten dizutenak saihestea.

Bat-batekoan bukaerak agintzen du. Idatzizkoan?

Niretzat bukaerako indar hori ez da hain garrantzitsua idatzian. Nik esan bertso osoan esan nahi dut, ez bukaeran bakarrik!

Sorta lehen bertsoetik hasten duzu, edo bertso solteak pentsatu eta gero loturak egin?

Eleberri formatoan nabilenean [ikus ondoko koadroa], prozesua garbia da: nora iritsiko naizen pentsatu, eta gero hasieratik hasi, eske- ma mentala oso zehaztuta. Kotxean asko ibiltzen naizenez, eta eskema mental hori buruan, osatzen dut lehen bertsoa, gero bigarrena, eta etengabe kantatzen ditut hasieratik. Hainbeste aldiz hasten naiz batetik bira, bate- tik hiruraino... azkenean sorta buruan dudala. Sorta asko egin ditut paperean idatzi gabe. Buruan ibiltzen ditut bertsoak, eta buruan sortu: dutxatik kotxera, etxetik lanera...

Bertsoetik jartzen duzu sariketarako ez bada?

Enkarguz, halakoren ezkontzarako, eta abar. Bestela? Apirila dela eta umorez nago- elako?... ez.

Nola irabazten dira lehiaketak? Oinarrietan jartzen duen bakarra da "8-12 bertso nahi duzun neurri eta gaiari"... Badago idatzi gabeko koderik?

Apustua zela eta, lehen azaldu bezala, era- baki nuen estuasun puntu bat gehiago ematea sortei: errima asko sartuta, neurri estuak... Nire "tranpa" hori izan da. Beste batzuek badakite "Lazkao Txikin mota horretako bertsoek ez dute funtzionatzen, eta beste sariketa honetan bai..." nik mapa hori ez daukat oso egituratua, ez nintzateke gai esateko bakoitzean zer saritzen den.

Nola gizarteratu bertso jarriak?

Lan handia egiten da sorta bakoitza idazten. Bidaltzen dira sariketetara, ondoren sarituak izango dira edo ez, baina sarri gertatzen da zera: joaten zara sari-banaketara, oholtzara igo, txaloak jaso, hartu zure sorta eta aio. Ez beti, adibidez Basarri sarian ohitura ona daukate, kantatu egiten dira eta kopiak banatu. Guk ere hala egiten dugu Zapi- rain anaietan, Okelarren liburuxka bat banatzen dute... Horrek ematen dio goxotasun bat parte-hartzaileari. Oso gogoan daukat nola behin, Joxe Legarreta sarian aita laguntzera joan nintzen (saria atera baitzuen), eta han, Ur-Mia soziedadean (Ereñotzu), xume-

Galdu

"Zapirain Anaiak sariketan jasotzen ditugun sortak Xenpelar Dokumentazio Zentrora bidaltzen ditugu. Ez dakit Dokumentazio Zentroak, norbanako batek edo beste erakunde batek egin behar duen, baina estimatuko nuke Interneten egotea denen sortak, klikatu eta irakurtzeko moduan. Bestela galdu egiten dira. Galdu. Baina hor jabetza- ren kontua dago: saritutako lanen jabetza sariketaren antolakuntzaren esku geratzen da, baina saritu gabeko sortena? Hori ez daukagu argi".



xume, nahi zuena joan zen, lau pintxo zeu- den eta paperei buruz hizketan aritu ginen. Denen artean kantatu genituen, bat eta beste komentatu genuen, eta sekulako oroi- tzapena daukat. Oiartzungo Manuel Lekuo- na sarian berdin. Agian horixe besterik ez da behar, goxotasuna eman parte hartzaileari, eta nahi duenari gonbitea luzatu.

Hortik aurrera, gizarteratzea... uf... hori beste pelikula bat da. Herrian egin genuen, garai batean bezala, bertso sorta bat atera eta kopiak tabernetan utzi. Behin egin genuen eta gaur arte, zeren hurrengo astean pasa eta leku berean zeuden. Lan handia da etekin gutxi lortzeko.

Zapirain anaiak sariekin asmoa dugu 25. urteurrena duenez, ehunka sorta horiek liburu batean argitaratzekoa.

Jartzaileak oso gutxi zarete, bat-bateko bertsolarien ondoan. Zergatik?

Ba ez dakit. Badago bertsolari multzo bat, bat-batean dabilenak eta idatzizkotan sari dexente lortu dituztenak. Agian lan handia da, eta bat-batekoa ez dut esango errazagoa denik, baina ezaugarri hori badu: joan, kan- tatu eta etxera. Idatzizkoak lanketa handia du, eta mentalki libre xamar egon behar duzu. Hutsetik abiatu behar horrek nagia ematen du, hasierako huts sentsazio hori gainditu arte. ■

Musika

Pil Pil

Oharkabea bada ere

Musikaren historian familia bereko kideez osatutako talde asko bihurtu dira ospetsu, eta beste batzuk ez dira ospetsu bihurtu mereziko luketen arren. Bigarren kategorian dago Pil Pil baxenabar laukotea. Hamar urtez zuzenekoari emanak, lehen diskoa kaleratu zuten duela hilabete gutxi.

UNAI BREA

ASKI EZAGUNA DA orrialde hauetan Mixel Thikoipe idazlea. Ez hainbeste Mixel Thikoipe musikaria, pertsona bera izan arren. Badu, amikuztarrak, ibilbide luzea taula gainean; bera da Pil Pil taldearen sortzailea, eta arima dela esatea gehiegi izan badaiteke ere, laukotearen izpiritu santua bederen bada, haren hitz berak erabiltzearen. Txistea errazago ulertuko da beste hiru kideak aurkeztuta: Aletxandre Bordagarai, aita, Jojo Bordagarai, semea, eta Bernadette Bordagarai, alaba. Hirurak ere, Thikoiperen askaziak.

Zerbait du haizeak Euskal Herriko ipar-ekialdean, hainbeste kantari on emateko. Familia bereko lau ahots hauek, nire aburuz, nazioarteko edozein zirkuitutan lotsa gabe erakusteko modukoak dira, eta halere doidoi dira ezagunak Euskal Herrian. Salbuespena Jojo Bordagarai dateke, musikan ibilbide oparoa egin baitu Pil Pilez aparte, baina haren izena ere ez da sobera entzuna Ipar Euskal Herritik kanpo. Pena. Azkeneko aldiz Pil Pil zuzenean entzun nueneko pena bera. Durangoko zubian izan zen, azoka ondoko Plateruena tabernan, lau katu ginela entzule.

Ohituta nengoen Pil Pil gitarra soil batekin ikustera, eta arraro egin zitzaidan Durangon antolatu zuten parafernalia. Bateria, baxua, armonika... Rock, blues, trad-folk ukituak nonahi, *a cappella*zko aire tradizionalak ohiko lekuari eutsi bazioten ere, Aletxandre aitaren ahotik batik bat. “Betiko” Pil Pilekiko jauzia nabarmena zen, baina arrazoi sinplea zuen: taldeak bere lehen diskoaren (*Hegaldaka*) soinu bera eskaini nahi izan zigun Plateruenan bildutakooi. Pribilejioa izan zen gainera, ez baita erra-

za izango laukotea berriz ikustea David Usabiaga musikariak haientzat bildutako taldearekin batera kantatzen. Aurrekontu estuek beren lege zorrotza ezartzen dute. Hala aitortu zidan Mixel Thikoipek egun batzuk geroago, telefonoz.

Betiko soinueta itzuliko da Pil Pil, hortaz,

baina bidean *Hegaldaka* ale ederra utzi digutelarik, ea azkena ez den. Hamar urteko ibilbidea biltzen du diskoak, beren errepertorioaren zati handia sartu dute bertan. Emaizta biziki eklektikoa da: Zuberoako kantu tradizionalak, zer esanik ez *a cappella* emanak; Estatu Batuetako doinu herrikoia; rocka eta folka nahasten dituzten abesti arinak, modernoak esango genuke; eta azkenburu, *Zerriaren industria*, blues gordina Martin Irigoienek idatzitako testu ironiko batekin, hiru Bordagaraitan semea denak maisutasunez kantatua.

Batetik bestera eramango zaitu *Hegaldaka* aditzeak, errusiar mendi batek bezala. Baina ezaugarri bi aurkituko dituzu etengabe diskoan, ezaugarri “transbertsalak”, modako hizkera erabiltzera. Bata, umorearen eta kritika sozialaren nahasketa bikaina, noiz biak batera, noiz bakoitza bere aldetik. Bestea, ahotsak. Eta ezinbestean, Bordagarai nebarrebak nabarmentzeko tenorea iritsi zait, barka diezadatela taldeko beste kide biek. Niretzat, Jojorena da uneon Euskal Herrian dagoen gizonezko bizpahiru ahotsik onenetakoa, eta zuhurtziak aginduta ez naiz gehiago busti. Ez naiz ausartzen Bernadettez hainbeste esatera, Zuberoan emazte anonimo batek baino gehiagok hunkitu nauelako haren pare, baina... Biak elkarrekin entzutea, sekulako gozatua. Pil Pil entzutea, gozatu biderkatua. ■



Liburuak

KRITIKA

Bizi!

Patxi Zabaleta.

Pamiela.

166 orrialde. 16 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Argilunen liburua

HOGEI URTEAN ahotsa aldatzen zaio pertsonari, heldu egiten dira oroitzapenak, iraungi segurantzak, poemak pilatu kajoietan. Gorka Trintxerpe itzuli da izena aldatuta, eta beste Euskal Herri bat kausitu duela kontatu digu. Begiratu dio neska-lagun gazteari, eta ederrak iruditu zaizkio haren tximurak. Aspaldiko lagunak haserretzen zaizkizunean politikagatik, eta ez dakizunean zer egin Petillatik Balmasedara oraindik egiteke dagoen Nafarroarekin, malenkonian erortzea normala da. Eta hala ere *Bizi!* ez da liburu malenkoniatsua. Poesia soziala da –soziala zentzu zabalean–, uneka distiratsua, orokorrean geldoa.

Iradoki baino definitu egiten ditu Zabaletak maitasuna, zahartzaroa, pena eta izpirituaren indarra, beti ere *Bizi!* aldarrikatuz, alegia, merezi duela. Zelan ez, hain aro luzea hartzen duen poemategian, kontraesanak ere badaude. 55. orrialdean dio: “Nork ez daki mesedea ez dela zor/ eta mesede zor zaionari/ ez dakiokela noski,/ deitu adiskide?”. Eta 62. orrialdean, ostera: “Zahartzaroan, behin agureturik/ esker txarrak hunkitzen nau gehienik/ lagunak eta adiskideen esker txarrak, alegia/ mesedetuen esker txarrak”.

Baina kontraesan horietan eta konfesio antzeko poemetan ibiltzea atsegina egin zaigu, kiribiletan, errimetan eta hitz-joko behartu xamarretan galtzen ez denean, sakontasuna hartzen dutelako poemek. Diskurtsoaren eta lirismoaren arteko oreka bilatzen duten pasarteekin gozatu dugu, horratik, gehien. Diskurtso poematua darabil Zabaletak bide, diskurtsoa du mailu, eta poesia mamuen kontrako sendabide. Baina diferentzia handia dago *Telesfororen makilaren* artean –zaharkitua, gatzbakoa, bertsolarizatua– eta *Gaza-ko gheoaren* artean –poesia konprometitu beti zailaren adibide duina–. Bestalde, irakurlea konbentzitu nahi ez duenean funtzionatzen dute hobeto poemek, *Argia joan zenean* ederrean lez.

Liburua penduluaren antzera dabil, batzuetan hizkuntzaren menpe eta beste batzuetan formaren kateak hautsiz, arnas narratibo luzeko elkarriketa poematu bihurtu arte. Sentimenduen eta ideien artean hautatu ezinik –zertarako, bestalde, hautua egin?–, Arrano Beltzaren hegaldiarekin amaitzen da liburuak, “hegalak zabal atzaparrak esku”.

Exijentzia handikoa da *Bizi!*, irregularra eta pazientziak irakurtzekoa, hogeit hamar urtean bildutako fruituak ez dira-eta denak batera jatekoak. ■

Gandiagaren azken egunez, Azurmendik

Bitoriano Gandiaga poeta lagun mina zuen Joxe Azurmendik. Hiltzeko zorian zegoeanean, bisitan joan zitzaion Zegamako filosofoa. Bisita hura gomutan, argitaratu zuen 2009ko amaieran *Azken egunak Gandiagarekin* liburuak. Gandiagaren obraren analisi modura hasi zen esku artean dugun liburuak, baina

askoz eremu metafisiko-agoetan sartu da: XXI. mendean sinestea zer ote den; zertan sinesten dugun eta zertan ez; zeri deritzogun Jainkoa... Pentsamendu horiek, Azurmendiren liburu guztietan bezala, erreferentzia ugariz jantzita datoz. Pertsonaetik abstraktura eta abstraktutik pertsonalera dabil liburuak, bizitzaren aurrean hartu beharreko jarreraren bila. ■



Azken egunak Gandiagarekin.
Joxe Azurmendi.
Elkar.
489 orrialde.
29,50 euro.

Linazasoro lau hizkuntzatan

Ale monografikoa da EIZIEk argitaratzen duen *Senex* aldizkariaren azken zenbakia. Karlos Linazasororen *Diotenex* (Erein, 2007) liburuko hamaika ipuin hartu eta hiru hizkuntzataraz itzuli dituzte. Itzulpenak, *Idazlea itzultzaileen lantegian* jardunaldian egin zituzten. Iñaki Frierak, Gerardo Markuletak eta Karlos Linazasorok berak egin zituzten ipuinen gaztelaniazko itzulpenak; Nahia Zubeldia arduratu zen istorioak frantsesera ekartzeaz; eta Sarah Turtle-ek egin du ingelesezko itzulpena. Eta, noski, euskaraz ere badaude ipuinok. Gainera, Manu Lopez Gasenik *Hamaika kontu, hiru itzulbide* artikulua idatzi du, Itziar Otegik *Bidaia bat itzul-topiara*; eta Linazasororen hitzak ere bildu dituzte zenbakia ixteko. ■



Senex 38.
Batzuen artean.
EIZIE.
95 orrialde.
11,95 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bike 3.0.
Batzuen artean.
Bilbao Kolektibo
Elektronikoa.
Iraupena: 35'16".
12 euro.

Gureak ditugun pasarteen eraldaketa naturalak

BILBAO KOLEKTIBO ELEKTRONIKOA musika elektroniko sortzaileak ezagutzera emateko ekimena da, eta hau orain arte kaleratu duten hirugarren bilduma; bertsiok batzen dituen lehena. 80ko hamarkadak utzitako zama arindu edo luzatzeko lana da, hain gureak ditugun kantuak askatasunez eraldatzen dituelako. Eskorbutoaren *Mata la música* (Unai Gonzalez) gustatu zait, Vulpesen *Me gusta ser una zorra* (Mimoloco) after-punka ere bai;

baita Kortaturen *Sarri sarri* (Lab7) instrumental, Delirium Tremensen *Ikusi eta ikasi* (Planetaleta) eta, batez ere, La Pollaren *Ya no quiero ser yo* (Gose) rockeroagoa ere. Baina badira, baita ere, Barricada, Zarama, Cicatriz, RIP eta Hertzainak-en bestelako irakurketak ere. Eta hainbat protagonistak parte hartu dute. Beste pauso bat independentziara bidean...

<http://bikebilbao.wordpress.com>

Unai Gonzalez - Bike 3.0

«Lan hau egiteagatik kritikatuak izango ginela uste genuen, baina egileak pozik gelditu dira»

Zer dela-eta bururatu zitzaizuen RRV-ren eta 80ko punkaren kantuak bertsiionatzea?

Aspaldiko ideia zen. Gu musika hori entzuten hazi ginen, nahiz eta denbora aurrera joan ahala beste estilo batzuk ere deskubritu genituen, tartean musika elektronikoa. Niretzat oso naturala izan da halako lan bat egitea.

Dagoeneko bazen ordua halako "sakrilegio" bat egiteko?

Musika elektronikoaren inguruan aurreiritzi asko dago oraindik gurean. Jendeak oraindik musika elektronikoa bakailoarekin lotzen du, baina uste baino askoz irekiagoa da. Nahiz eta poliki-poliki pentsaera hori aldatzen doan, lan hau egiteagatik kritikatuak izango ginela uste genuen, batez ere talde horien aldetik. Baina, azkenean kontra-ko gertatu da; beldur apur bat genuen arren, guztiak pozik gelditu dira.

Nork egin du abestien aukeraketa? Aukeratutakoak dira esanguratsuenak?

Talde bakoitzak aukeratu du bertsiioneatu behar zuen taldea eta abestia; arau bakarra zen abestia ez errepikatzea. Aukeratutako guztiak esanguratsuak direla uste dut, baina garrantzitsu batzuk kanpoan gelditu

dira. Abestiei dagokienez, berriz, klasikoak dauden arren, beste batzuk ia ezezagunak dira.

Zer da zure ustez garai hartako taldeek izan zuten gauza garrantzitsuena?

Jarrera.

Omenduek harrera ona egin diote, ezta? Izan duzue anekdotarik?

Vulpeseko abeslari Mamenek esan zигun *Me gusta ser una zorra* abesten zuen azkeneko aldia zela; 17 urte zituenetik ezin zuela gainetik kendu eta aspertuta zegoela. Delirium Tremenseko Andonik, berriz, ez du bere taldea izan zenarekin ezer jakin nahi, itzultzeko jendeak egiten dien eskaeraz aspertuta dagoelako. Proiektua ondo azaldu genionean, baina, baiezkoa eman zигun. El Drogasek esku hartzea ere oso berezia izan zen. Are gehiago, gitarra ere gustura joko zuela esan, eta bat ekarri genion jo zezan; hala egin zuen. ■



Ezpalak

JON TORNER

Gipuzkoako Museoak Antolatzeko Plana aurkeztu du Aldundiak



WWW.KULTURA.EJGV.EUSKADI.NET

GIPUZKOAKO museoen arteko elkarlana bultzatu eta herritarrei ondarea ezagutaraztea da Gipuzkoako Museoak Antolatzeko Planaren helburua. Urte eta erdi aritu dira plana ontzen, eta pasa den astean aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Planaren asmoetako bat da museoak gaika antolatutako sareetan biltzea: Itsasoa (Itsasoaren Euskal Museoa, Untzi Museoa, Aquariuma...), Burdina (Mirandaola, Chillida Leku, Trenbidearen Euskal Museoa...), Natura (Kutzagunea-ingurumena, Luberri, Lizarrusti-Aralar Parketxea...), Gastronomia (D'Elikatuz, Aikur, Gatz Museoa...) eta Arteak (Antonio Oteiza museoa, Mentxu Gal, Chillida-Leku, San Telmo museoa...). Historia izango da egitasmoaren ardatz nagusia, eta haren baitan, Donostiako San Telmo museoa eta Gipuzkoa Geroztik egitasmoa. Historiaren sarea garaika banatuko da eta hamaika museo bilduko ditu: Ekainberri, Oiasso, Zumalakarregi, Igartubeiti, Makina Erremintaren Museoa, Photomuseum... Epe laburrera begirako egitasmoei dagokienez, Irunen eraikitzen ari diren Gordailua izeneko eremua da esanguratsua. 2011n irekitzea espero du Aldundiak.

Maite Ruiz de Austri animazio zuzendaria omenduko dute hilaren 28a arte luzatuko den Gasteizko Zinemastea topaketetan. Ikus-entzunezkoen munduko profesional arabar bati eman ohi zaion Gutako bat saria jasoko du idazle, gidolari, ekoizle eta errealizadoreak. Bost film luze eta telebistarako bi serie zuzendu ditu, besteak beste.

Henry David Thoreau


(1817-1862) AEBetako idazlearen *Resistance to Civil Government, or Civil Disobedience* liburua euskaratu du Edu Lartzanguren kazetariak. *Ostie-la!* aldizkarian plazaratu zuen aurrenekoz, eta orain Potxo argitaletxeak kaleratu du. Papelean argitaratzeaz gain, Internetetik deskarga daiteke. Gainera, entzuteko moduan ere sareratu dute. Hori guztia, Thoreauri eta bere obrari buruzko informazioa biltzen duen *Desobedientzia Zibila* blogean (<http://sites.google.com/site/desobedientziazibila>)



Pedro Esarte historialariak *Juan Rena, clave en la conquista de Navarra* (Pamiela) liburua plazaratu du. Jaiotzez veneziarra zen eta Iruñeko gotzain izatera heldu zen Juan Renaren figura aztertu du Esartek. Nafarroa okupatu zuten ejertzitoen mugimendu ekonomiko ororen sustatzailea izan zen Rena: Fonsecaren mailegu-emailea izan zen, hura Nafarroara sartu zenean (1512an); eta Pizarro kapitainaren patroia (1516an); baita 1521ean Nafarroatik ihes egin zuen —eta beranduago berriro itzuli zen— Gaztelako ejertzitoaren estrategia militarra ere...

● **Joxe Rojas blogari eta Topagunea Euskara Elkarleen Federazioko prentsa arduradunak Gaur 8 aldizkarian:** «Aliertak ere argi du gaur egun adimena sarean dagoela... eta sareko azpiegitura berea ez beste inorena dela... eta horri atarramentu ekonomikoa aterako diola nola edo hala. Orain arte miseria gorrian bizi izan baita gaixoa! Horrelakoek ez gintuzkete harritu behar jadanik. Oraingoan Telefonikako nagusia izan da ahoa bero-bero aritu dena, baina onartu beharra dago Facebook, Twitter, Google eta enparauak helburu argi batekin sortu direla, eta helburu hori ez dela, hain zuzen ere, adimen kolektiboa sustatzea...».

● **Carmen Gómez Sancho el Sabio fundazioaren zuzendariak Euskonews & Median:** «Kultura-zentroak hirien aldirietan egotea Europa mailan ematen ari den joera batean kokatzen da. Kultura-zentro asko ari dira irteten hirietako erdigunetik kanpo, askotan ezinezkoa delako hiri horretan gehiago eraikitzea. Nik beti ipintzen dut adibide bezala Pariseko liburutegi berria, Mitterrand. Guztiz narriatuta zegoen auzo batean eraiki zen, eta liburutegiak ingurune guzti hori piztea lortu du. Hemen gauza bera gertatzen da: industrigune batean gaude, eta inguru guzti hau piztea da helburua, Gasteizko kultura-guneetako bat bihurtu dadin».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

1981eko estatu kolpearen klixeetatik harago

Anatomía de un instante (Une baten anatomia). Javier Cercas.
Random House Mondadori, 2009. 462 orrialde.

ASTEARTEAN, albisteen orduan, Hegoaldeko telebista gehienek irudi bera ekarriko zuten pantailara: Tejero teniente koronela Espainiako kongresuan oihuka; tiroak; Manuel Gutiérrez Mellado presidenteordea militarrei aurre egiten; eta Adolfo Suárez, presidentea, bere eserlekuan gelditi. Segundo gutxi batzuk jarriko zituzten ziurrenik, eta gero aipatuko zuten 29 urte joan direla, 1981eko otsailaren 23an militar batzuk Espainian estatu-kolpea jotzen saiatu zirenetik. Agian Valentziako irudi batzuk ere jarriko zizkizuten, kaleetan tankeak, Milans del Bosch delako bat aipatu... Baina gero Juan Carlos I.aren irudi heroikoa, ia mitikoa –zentzu helenikoan, ez orain jendeak erabiltzen duen bezala– atera zuten, eta demokrazia irabazle. THE END.



Klixea da honezkero Espainiako eta Euskal Erdi honetako hedabideetan. Eta klixek horretatik abiatu da Javier Cercas *Anatomía de un instante* izkiriatzeko. *Tejeraz* oaren historiak ematen baitu nobela baterako; are gehiago, hainbeste urteren ondoren, errealtatea eta fikzioa pixkanaka nahasten ari direla ikusita. Urtero telebistak jokaldiaren errepikapena eskaintzen digu, baina inor gutxi ausartuko da kontrako angelua eskaintzera. Inork gutxik eman- go du estatu-kolpearen testuingurua. Inork ez dizkizu deskribatuko, militarrek kongresuan sartu aurreko hilabeteetan, Madrilgo botere-zirkuluetan egosi ziren konspirazioak, alderdi guztiak eta Erregea sukaldari.

Ba, lokatz horietan sartu da Cercas liburu honetan. Nobela- ren teknikak erabilia osatutako saiakera, ala saiakera baten gisa idatzitako nobela, ez dio asko axola. Idazle espainiarrak lortzen du liburu osoan tentsio narratiboa mantentzea, *flash-back* luzeak erabiltzen ditu garaiko politikari bakoitzaren bizit- zan bilatzeko; eta etengabe itzultzen da une batera, otsailaren 23ko kolpera, pertsonaia bakoitzaren jarreraren zergatia ulertze- ko asmoz. Hiru pertsona ditu detaile handiz erretratatzeko: Adolfo Suárez, Santiago Carrillo eta Manuel Gutiérrez Mella- do. Hirurak ere, Hans Magnus Enzensbergerren hitzak erabi- liz, “erretretako heroiak” dira Cercasentzat, beren burua –idealak, proiektu pertsonal eta kolektiboak– zulatuz guztien interesen alde egiten duten pertsonaia grisak.

Eta, gustura irakurri dudana arren, hor egin dit karranka libu- ruak: kontuak kontu, eta azalpenak azalpen, hirurak, bakoitza bere modura, oportunista hutsak iruditu izan baitzaizkit beti. Cercasek kontsentsuzko tesia aukeratu du, material berarekin gehiago bustitzeko aukera izan arren. Lastima. ■

Ugarte
Nekazalturismoa

Bebailara.

20159 ASTEASU

Tel.: 943 69 27 22

657 72 53 21

e-posta: legarrayolan@yahoo.es

www.nekatur.net/ugarte



ANA ZAMBRANO

ERGEL, INOZO JAINKO GREKOA	↓	TAKA-TAKA, OINEZ ZEIN TOKITAN	↓	ZOTZ	 ALEX LARRETXI	... ETA ZAZI PAREAK	↓	HILOBIA ARDURATU	↓	ESKUMUTUR ZENBAIT ARTROPODO LEHORTAR	↓
TALKA, TOPEKADA ZERBAITEN UNE GORENA	→					UGAZTUN MARRADUNA ATERA, IRTEN	→				
	↖					NIRE ALDI, SASOI (ALDERAN- TZIZ)	↖				
LITROA ITSASONTZIA GOBERNA- TZEKOA	→	UDALTZAIN, HERRIZAIN ITSASONTZI- KO LANGILE	→						GOROTZA ELEMENTU KIMIKOA	→	
	↖		↓	NAFARROA- KO BAILARA AMETS EGIN	→					"HARA BI, ZU BAT ETA BESTEA ..." UBELA	→
ELURRA POLIKI- POLIKI ETA UGARI	→	BITS ITSAS ARRAIN IZENA	→		METALEZKO DISKO AUTOMATA	→					ERLEEK BILIZEN DUTEN JANGAI GOZOA
	↖	↓			↓						↓
UGARITASUN ATZIZKIA MUIÑ, MAMI	→		LEPORATU DAUKAT (ALDERAN- TZIZ)	→		GIZONEZKO TRATAERA PERTSONALA- REN ABIZENA	→		AHOTZ NAIZEN HONEK	→	
	↖		↓		LAPURDIKO HIRIBURUA RADONAREN SINBOLOA	→			↓	TONA 501 ERROMATAR ZENBAKIZ	→
INOREN ALDE AGERTZEN EZ DENA ZALDUNERIA	→				↓	GAINDITU ADITZAREN ERROA AZKENA	→				↓
	↖				↓			PORTUA, NASA	→		

Kike Amonarrizzen umorea

—Jainko maitea! Zure borondatearen erdia banu!

[illegible]


ZIZTADAK



*Erlamandoen lasterketa,
erlauntzara itzulera eta erlezain burutsua.*

*Egin zaitez 3 jolas hauen bidez
erle esploratzaile prestua.*

>>> 5 urtetik gorakoentzat



Prezioa:

29 €

ARGIAren
harpidedunek:


-%15

Eskaerak:

© 943 371 545

www.argia.com

denda@argia.com



argia
JOLASAK

Zientzia eta teknologia

JOXE ROJAS

i-Zurumurraren amaiera

STEVE JOBSEN jarraitzaileek, edozein futbolzale bezala, beren nahi, espektatiba eta frustrazioak proiektatzen dituzte beren idoloengan. Hala, duela urte batzuk Tablet PCak modan jarri zirenean, mac-hooliganak berehala hasi ziren ustezko TabletMac bati buruzko zurumurrak hedatzen. Zurumurrua inda-

ko; ez da telefono bat, horretarako handiegia izateaz gain, ez duelako deirik egiteko balio; liburu elektronikoa gisa ere ikusi beharko, pantaila arrunta baitu, eta ez paper elektronikoa, nabigatzeko gailua dela dio Applek, baina horretarako teknologia gakoak —Flash, esate baterako— ezin ditu erabili. Kritika andana jaso du iPad-ak, maczalerik amorratuenetako askok ere PowerMac Cube, AppleTV edo MacBook Air ekarri dituzte gogora: teknologia aldetik punta-puntakoak izan arren, oihartzun eskasa lortu duen aurrekariak.

Bi hilabete falta dira oraindik iPad famatua kalean ikusi ahal izateko, eta ordura arte ez dago jakiterik benetan zer harre- ra izango duen. iPhone telefonoak ere antzeko kritika jaso zituen hasieran, telefono huts gisa oso mugatua zelako, baina kontuak kontu, mundu osoko telefono egileen erreferente nagusi bihurtu zen egun batetik bestera.

iPadak ere denetik du apur bat, hutsune nabarmenak eta Appleren murrizketa politika zorrotza barne... baina Jobs eta bere lagunak maisuak dira murrizketa horiek estiloaren moztaroz saltzen, eta bere produktu berrien inguruko ezinegona produktua bera salgai egon baino dezente lehenagotik sortzen. Asmatuko dute oraingoan ere? Bi hilabete barru ikusiko dugu.



MATT BUCHANAN

rra galtzen joan zen, netbook oldearekin batera berriz ere suspertu arte. Arraroa egiten zitzaion askori netbookek suposatzen zuten ordenagailu kategoria berrian Applek alternatibarik ez aurkeztea.

Gorabehera horiek duela pare bat aste amaitu dira, Steve Jobs taula gainera igo eta iPad delakoa aurkeztutakoan. Maczale asko etsita daude (gaude!) Appleren gailu berriarekin, eta arrazoiak ez dira falta: ez da TabletMac bat, iPhone telefonoen sistema eragilea daramalako; ez da netbook bat, teklatura faltan eta prezioan dolar askotxo soberan dituela-

Armiarma-sarea, ura atmosferatik jasotzeko tresna

Beijing-eko (Txina) Laborategi Nazionalen ikerlariak, *Uloborus Walckenaerius* armiarma espeziak egiten duen sarearen egitura berezia —pilota txikiz jositako haria— aztertuz, eremu idorretan atmosferatik ura biltzeko sistema proposatu dute *Nature* aldizkarian argitaratutako artikuluan. <http://ttiki.com/10563> (Frantsesez)

Tabakoa errez sortutako kea inguruko objektuekin nahastearen arriskuak

Leku itxian tabakoa erretzeagatik sortutako kea leku horretako altzari, horma, arropa edo alfonbretan dauden beste substantzia batzuekin konbina daiteke, substantzia kantzerigenoak sortuz. Kearen zeharkako eragina ere kontuan hartzekoa izango da, beraz. <http://ttiki.com/10564> (Frantsesez)

Antimateria kopuru handitan ekoizteak Y-155 izarra akabatu zuen

Y-155 izarra osatu zenean, bere masa eguzkiarena baino 200 aldiz handiagoa zen, eta bere gunea hain bero zegoen, non une batean materia eta antimateria partikula-bikoteen produkzioa izugarri hazi zen. Horren ondorioz, oso urrundik ikusi ahal izan zen erreakzio termonuklearra izugarria gertatu zen. <http://ttiki.com/10565> (Gaztelaniaz)

Joxerra Aizpurua

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Bertan gozo

Hona platanoa (*Platanus x hispanica*), gure herrietan nonahiko zuhaitza. Neguaren hasiera honetan fenomeno polit baten testigu. Adi argazkiari: hostotza soildua du baina ez denean, farolaren bueltan hortxe eusten dio. Zuhaitzaren ustetan negua, hostoa botatzeko sasoia, tenperatura eta argi kopuruaren murrizketak dakar. Farolaren aldamenen hotza epelxeago eta gaua argixeago direnez negua beranduxeago iristen da. Horra hostoak bertan gozo.

Lupu jostailua

BERARAKIA (*Eruca vesicaria* subsp. *sativa*) bezala afrodisiakoak dira marrubia, muxika, sagarra eta baba eta ilarra eta... Bukaerainoko lista osatzeko tentazio lizuna datorkit baina honezkero nire amaierarik gabeko zerrendez nazkatu samarra egongo da irakurlea... Lizun kontu urdinetatik urrun, ar eta eme, eme eta ar, era guztietako zeresan eta amen-omen entzuten da landareei buruzko burutazioetan. Honezkero entzuna duzu frutarik ematen ez duena arra eta alferra denaren esamesa, landare emeak alferra izateko eskubiderik ez balutan... eta gehienetan oker bidetik inausi izanaren arazoa izaki...

Ulu-mulu-zurru-murru-txutxu-mutxu-txutxu-putxu hauetako bat darabilt aldamenean. Zeraingo *XaguArtea* aldizkarian kurkubitari buruzko idatzi puska argitara eman dute, eta dantzan jarri nau, poxpolin. Poxpolin eta kurkubita bat dira, ala ez? Bakterioak, onddoak, intsektuak, akaroak... landareetan sortutako lupu edo tumoreak dira. Landarearen "fruitu" direla uste izan da, baina, izan, kanpoko bizidun bat eta landarearen arteko elkarlan baten ondorio besterik ez dira. Tanino mordoa dutelako larrua ontzeko, jostailu... erabilera anitz izan dute. Eta esaerako lupuak heldu arterainoko izen pila dute. Zerainen intsektu batek haritzean (*Quercus robur*) sortzen duenari kurkuita deitzen diote eta poxpolina ametzarenari (*Quercus pyrenaica*).

Harantzaxeago Bergara, Nabarniz, Xemein, Lizarraga, Berastegi, Leitza, Unanua, Arruazu, Bakaiku, Ozaeta, Aibar eta abarren barrena kukusagarra, kukubala, kurkubitte, txantxilikota, kukurro, kukurru, kukumela, kurrumeta, kurkuite, kuskule, kuskulu, txantxari, zibota, txurru, kukur, kurkubio, kurkullu, korkubatxa, kukurubatxa, korkotxa, kokorotxa... Izen jolas polita... Ziba gisara edo lasto-ipurdiarekin putz eginez airean eustera jolasteko.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba
Ugarte Industrialea, 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elkagai ekologikoak •
Usurbilgo baserrietako produktuak •
Sagardogintzarako tresneria •
Tratamendu naturalak •
Onttoen haziak... •
Banaketa zerbitzua •

DENDAREN ORDUTEGIA
Astekhenetik-Ostiralera: 9etatik-11etara
Larunbatetan: 9etatik-11etara

Tel/Fax: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Gurpilak mastekatzen

WWW.PHOTOBUCKET.COM

NEW YORK, 1869. Thomas Adams (1818-1905) zientzialaria gurpilak egiteko material alternatibo baten bila ari zen lanean. Zehazki, Yukatan inguruan ohikoa zen *Achras sapota* zuhaitzaren erretxina erabili zuen jostailuak, euritako botak eta bizikleta gurpilak egiteko. Baina esperimendu horiek guztiek porrot egin zuten.

Baina Adamsek bazekien mexikarrek erretxina horri *tzictli* esaten ziotela eta mastekatu egiten zutela. Hain zuzen, Antonio Lopez de Santa Ana buruzagi mexikarraren idazkaria izan zenean izan omen zuen horren berri. Hala, *tzictliari* azukrea erantsi eta 1871ko otsailean salgai zen Adams' New York Gum delakoa, hau da, lehenengo txikle merkaturatu zen.

Mende asko ziren maiek eta aztekek txikle hartzak garbitzeko erabiltzen zutela. Baina Frai Bernardino Sahagun historialariak XVI. mendean jaso zuten, txikle jende aurrean mastekatzea ez zegoen ongi ikusia, besteak beste, prostitutek, bezeroak erakartzeko, txikle mastekatzu zaratagiteko ohitura omen zutelako.

Adamsen produktuak berehalako arrakasta izan zuen kontsumitzaile estatubatuarren artean eta, ondorioz, lehia ere azkar agertu zen. 1880an William J. Whitek menta zaporea



Txikle ona da marinelen hortzentzat, gosearentzat eta digestioarentzat, 1918ko iragarki honen arabera.

begetala material sintetikoek ordezkatu zuten eta produktua merkatu egin zen. Eta txikle Europa iritsi zen.

Baina zuzenagoa litzateke soldadu estatubatuarren eskutik txikle Europa itzuli zela esatea. Izan ere, duela urte batzuk orain arte aurkitutako txikle arrastorik zaharrena topatu zuten Suedian. Urki erretxina zati bat da, 9.000 urte ditu eta Harri Aroko gizaki baten hortz-haginen markak dauzka.

erantsi zion mastekatzeko gomari eta Anna Held aktore ezaguna erabili zuen produktua iragartzeko. Adamsen kontraerasoa New Yorkeko metroan lehenengo txikle makinak jartzea izan zen. Baina 1891n William Wrigley Jr.ek mentazko txikleaz gain fruta zuku zaporea zuena ipini zuen salgai. Harvey Firestone ere saiatu zen negozio berrian sartzen, baina, Adamsen alderantzizko bidea eginez, azkenean gurpilak fabrikatzen lortu zuen arrakasta.

XX. mendeko gerra handiek, bereziki Bigarren Mundu Gerrak, txikle mundu osoan zabaltu zuten. Txikleak gosea kendu eta estresa murrizten omen zuen eta, horrenbestez, egokia zen fronteko soldaduentzat. Gainera, urte horietan erretxina

Arrastoak

Parisen zatiak saldu dituzte

PARIS MON AMOUR izenburupean, iragan abenduan Frantziako hiriburu 350 "zati" saldu zituzten enkantean. Pieza nagusia Eiffel dorreko (argazkian) eskaileren zati bat izan da, 7,8 metrokoa, 1983an kendu zutena, eta 85.000 euroren truke bereganatu duena erosleak. XIX. mendeko metroko bi banku-

ren truke 20.320 euro ordaindu dituzte eta Napoleon III.aren garai-ko komun baten truke, 3.348.

Objektu izar horiez gain, 90eko hamarkadako taximetro bat, telefono kabina zahar bat, kiosko bat, zaborrontziak, farolak eta abar ere saldu dituzte Cristophe Lucienek antolatutako enkantean.



WWW.WORDPRESS.COM



Jakes Bortairu

Paris, 1957. ABko kidea da eta euskalgintzako militante gisa Batera plataformako partaidea. Baterak ekimen berria abiatu du Akitania Erregioko hauteskunderen kariatara –martxoaren 14an eta 21ean–. Ekimena herri-kontsulta antolatzea da –posible izanen den herri guztietan–, galdera hau izaki: “Euskal lurralde elkargo baten sortzearen alde zirea?”.

Estatuaren erreformaz, deszentralizazioaz, herri galdeketa, eta oro har Erregioko bozez mintzatu gara.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

«EH Baik sistema salatu nahi du boz baliogabetuaren bidez»

Nicolas Sarkozy presidenteak Estatuaren erreformari ekin zion 2009an. Zertan datza erreforma hau laburrean?

Erreforma honen bidez –Estatuko egitura handiak ukitu gabe– Estatu azpiko instituzio guztiak berrantolatatu nahi ditu Sarkozyk. Lege berriaren bitartez, birzentralizatzeko joera azkartu nahi dute Frantzia, botere guneak herritarrengandik urrunduko direlarik. Bestalde, edozein gaiez edo edozer politikan eskua sartzeko erregioek eta departamenduek duten eskuduntza orokorra galduko dute. Erreformen nondik norakoak ikusirik, Ipar Euskal Herriak ez du izaterik, are okerrago, indarrean dauden hainbat egitura –*Pays* delakoa, esaterako– desagertu daitezke. Halaber, azpimarragarria eta kezkarria da, paraleloki, Estatu zerbitzuen anto-

lamendua murrizten ari dela arlo guztietan: hezkuntzan, justizian, gizarte segurantzian, postetxean...

Erregio bozak heldu dira martxoan. Erreformak, bozek eta Bateraren galdeketa bat egin dute aldiari nola bait.

Baterak 2002an hasi zuen dinamika eta logikaren segidan heldu da galdeketa. Testuingurua aldatu denez, ekimen berri hau plazaratzea erabaki dugu. Euskal Herriaren boza entzunarazi nahi dugu era zehatzez Frantziako Gobernuaren interpelatzeko.

Nola arrazoitu duzue ekimena?

Gobernuak ez du herritarrek egin duten erreferendum eskaera –32.000 biztanlek izenpetua– entzun nahi izan, beraz, Baterak herriko hautesien laguntzarekin herri kontsulta

antolatzea erabaki du. Iragan uztaileko Biltzar Nagusian adostu eta publikoki adierazi ondoren, lehen urratsa urriaren 9an eman genuen. Egun hartan, milaka eskaera karta Suprefeturan aurkeztu genuen eta Sarkozyri berari galde zehatza helarazi genion gutun bidez. Alta, Gobernuak ez dio eskakizunari erantzunik eman. Anartean, Guadalupe eta Martinikan erreferendumak antolatu dituzte, Korsikan ere duela zazpi urte egin zuten bezala. Euskaldunek ez al dugu eskubidea bera? Gurekiko mesprezua begi-bistakoa da.

Galdeketa antolatzen ausartu zarete.

Baiki. Herritarrek eta hautetsiek biziki ongi erantzun baitiote Bateraren asmoari. Ideia uste baino hobeto ari da zabaltzen, ekimena egunez egun handitzen ari da. 150 bozka bulego antolatzea aurreikusten

dugu 100 herritan, 800-900 laguneko parte-hartzearekin. Momentuz, hautesleen %66a izan da kontsultatua, bi herenak. Kontsultak ez du balio legalik, gu ez baikara instituzio bat. Alabaina, nahiz eta balio juridikorik ez duen, balio politiko-sozial azkarra izan da.

Prefetak hautetsiei kontsultaren antolatetan ez parte hartzeko dei egin die ordea. Zertan da afera?

Prefetak kontsultaren aurrean egin du Laborantza Ganbararen auzian egin duena: beldurra eta nahasketa sortu, baina argumentu juridikorik gabe. Alta, gure erantzuna ikusirik gibelera egin behar izan du. Suprefetak kontsulta ilegala dela erran die hautetsiei, parte hartuz gero zigortuak izan direla, baita herritar antolatzaileek ere ondorio juridikoak jasanen dituztela. Areago, auzapezek ez dutela eskubiderik Batera-ri materiala edo Herriko Etxeatoko gelak prestatzeko adierazi du. Baina hori guztia gezurra da. Auzapezak presionatu nahi izan ditu, herritar-rrak isilarazteko eta beldurtzeko. Jurisprudenzia frantsesak dienez, auzapezak ezin dio elkarte bati materiala ukatu. Gure abokatuak prefetari esan diotenez, bozak ez trabatzea da errespetatu behar den arau bakarra. Guk hori argi geneukan eta horrela arituko gara. Kontsulta, bozketa ondoko toki batean egingen da, ez leku berean, boz geltan ez da nahasketa izan.

Trabarik aurreikusten duzue bozka egunean halere?

Ez. Izan zitezkeen trabak saihestu ditugu. Prefetak funtsezko eztabaida ezkutatu nahi zuen. Kontua ez da kontsulta ilegala den edo ez, baizik eta Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionala haizu den ala ez. Jendea horretaz jabetzea nahi dugu.

Emaitzak emaitza, Batera zein emaitzarekin konformatuko litzateke?

Galderari "Ez" asko ematea ere izan daiteke emaitza. Hori da demokraziaren jokoa. Batak, bi helburu lortzea nahi du: bat, Euskal Herriko gizarteak egiten duen instituzio eskaera ez dela—erreformaren bitartez—zapuztuko agertaraztea. Bi, frantses gobernuaren interpetatu,

"Prefetak herri kontsultaren aurrean egin du Laborantza Ganbararen auzian egin duena: beldurra eta nahasketa sortu, baina argumentu juridikorik gabe".

ahalik eta mobilizazio zabalena eraginez. Izan ere, kontsulta honen bidez beste mobilizazio mota bat bultzatu nahi izan dugu. Ez da egiazko kontsulta, mobilizazioa da funtsean. Eta mobilizazio bat abiatzean ez dakizu nolako hedadura izanen duen. Kasu honetan ere, jendearen parte-hartzea ahalik eta handiago izan eta mobilizazioak pisu handiago izan du.

Erregioko bozen emaitzek eragin dezakete erreforman?

Bai, baina erreforma aski aitzinatu-ta dago. Hainbat lege testu prest daude jada. Noski, eskuinak alimalako xafakoa hartuko balu, horrek parlamentuan izan daitezkeen eztabaidetan eragin lezake. Oraindik trenkatu gabe dauden gai batzuk, emaitzen arabera bideratu daitezke alde batera edo bestera. Baina, funtsean, frantses eskuinak nahiz ezker-rrak, barne eztabaida biziak dituzte lege proposamen horren hainbat puntuak buruz.

Erreformak erregioen eta departamenduen egiturak ahuldu litzake. Alta, ordainetan, herriek elkargo gisako bat osa lezakete. Zer iritzi duzu uste horretaz?

Irudiz, botere gunea herrien egituratik herri elkargoetara alda daiteke,

"ABk ikusten du fase politiko berria zabaltzera doala Euskal Herrian, eta horren aurrean erantzukizunez jokatu behar duela"



eta gero departamenduetatik erregioetara iragan. Beraz, botere bi polo sortu daitezke: Herri Elkargokak eta Erregioko Kontseilua. Oraino ez dira xehetasunetan sartu halere, eta deabrua xehetasunetan gordetzen da. Alegia, nola lotuko dira eskuduntza duten gune horiek? Gai batzuetan, beharbada, hobetze bat izan da, bestetan, erabakiguneak herritarrengandik urrundu-ko direla aurreikusten da. Milaka hautetsi galduko dira eta diru publikoa aurreztuko delako poztan ez dira politikari profesionalenak. Demokraziarako zer da hobe, hautetsi kopurua murriztea edo zabaltzea? Ordezakariak asko izatea onuragarria da printzipioz, hots, herritarrek parte-hartzea herriaren kudeaketan. Erreformarekin aldez, herritarren aukerak gutxituko dira.

Akitaniara jinez, zer azpimarratuko zenute hauteskunde hauetan?

Hauteskunde hauek berezitasun bat dute Ipar Euskal Herrian, LGVaren (Abiadura Handiko Trenbidea) inguruan gertatuaren ondorioz. Aferak gatazka soziopolitiko min-

Batera plataformaren ibilbidea

2002AN sortu zen ekimena, lau eskakizun eta lau herri sektore uztartuz: euskalgintzaren, unibertsitatearen, laborantzaren eta instituzioaren aldeko sektoreak. Batera plataformak aliantza estrategikoak bultzatu zituen indarrak bildu aldera. Lehen fase batean herri dinamika landu da eta mobilizazioak azkartu ditu lau eskakizun hauen inguruan.

2004AN, lehenengo fasea gaindituta, bereziki bi arlo jorratzea deliberatu zuen: Laborantza Ganbara sortzea eta Euskal Departamenduaren gaian sakontzea. Kari honetara, herri-galdeketaen aukera hausnartzen hasi zen Batera. Laborantza Ganbarak berezko bidea egin du ordutik gero. Une honetan auziperatuta dago hain zuzen ere.

2006AN, berriaz, frantziar legedi berria baliatuz, erreferendum edo herri-galdeketa egiteko bidea urratzea

deliberatu zuen. Herritarren sinaduren %10 bildu behar zen galdeketa ofizialki gauzatzeko. Bi urtez aritu zen lan horretan. Ez zuen helburua lortu Departamendu mailan, baina Ipar Euskal Herrian bai: bizilagunen %15ak sinatu zuen agiri eskakizuna.

2008AN eskaerak agintari frantziarren betiko ezetza jaso zuen. Ekimena motelduz joan zen eta plataforma bide berriak lantzeko moldea eztabaidatzen hasi zen. Baterak gogoeta prozesu berria abiatu zuen hartara.

2009AN Nicolas Sarkozy presidenteak Estatuaren azpiko instituzio —erregioen eta departamenduen egituren— erreforma egitea erabaki zuen.

2010EAN Baterak herri galdeketa antolatzea erabaki du Akitania Erregioko hauteskundearen kariatara.

bera azaleratu du, eta horrek ondorio zuzenak izan ditzake emaitzetan. Zein? Ikusiko dugu. PSko Alain Rousset-ek zein UMPk LGV delakoa defendatzen dute buru-belarri, kontrako borroka eramaten duen CADE herri plataformak horiei bozik ez emateko eskatu du.

Batasuna eta AB EH Bai-n bildu dira berriaz ere. Nola baloratzen duzu elkarrekin joatea?

Hautua EH Bai sendotzeko egina da, ezker abertzalearen soziologikoa indartzeko xedez. Etorkizun handiko koalizioa da. Ez da hauteskunde hauei begira egina, perspektiba luzeago batez baizik. Hauteskunde hauek eskaintzen dituzten posibilitateak aztertu dira. Hau da, Erregioko hauteskundeak eginak diren bezala, abertzaleek ez dugu inolako aukerarik hautetsi bat ateratzeko. Hauteskunde kanpaina pro-

testarako ekimena izatea nahi dugu. EH Baik, protestako boto-paperekin bitartez, boz baliogabea erabiliko du Euskal Herriak Estatuaren aldetik jasotzen duen mesprezua eta ukapena salatzeke, bai instituzioen eskaerak bai hainbat ekimenek jasotzen dituzten erasoak salatzeke: Laborantza Ganbararen auzipetzea, euskararen ofizialtasunaren ukapena, errepresioaren salaketa —Jon Anzaren desagertzea tarteko—.

Berdeak alderdiko Jean Lissarrek, ABk euskal gatazkaren konponbidean Batasunaren aitzinean amore eman duela dio —lauzpabost bozen aldearengatik ez duela Europe Ecologie-rekin koalizioa osatu erran digu orriotan—. Politika eraginkorra egiteko tenorea dela ere erran digu.

ABk eztabaida sakonaren ondoren egin du hautua eta barne bozka baten bitartez auzia trenkatu. ABk ikusten

du fase politiko berria zabaltzera doala Euskal Herrian eta horren aurrean erantzukizunez jokatu behar duela. EH Bai aukera hobetsi du ABk. Datorren urtean kantonamenduko bozak izanen dira eta abertzaleok emaitza onak lortzeko aukera izanen dugu. ABk nagusiki horri begira egin du oraingo hautua, aliantza indartzeko. Bestalde, hautetsi baten lortzeko aukera ez zen batere segurtatua. Gauza bat da lehen itzulian Europe Ecologierekin aliantza egitea baina bigarren itzulian zer? Zer aliantza mota PSrekin? Zer politika eraginkorra egiteko? Negoziaketan lortuko al du Europe Ecologiek PSk LGVaren proiektuan gibelera egitea? Ez. Europako hauteskundeetan ABk egin zuen aliantza emankorra izan zen. Orain, berriaz, gure berezitasunen ezagutza ukatzen duen sistema eta joko araua salatu nahi ditugu boz baliogabetuaren bidez. ■



Nekane San Miguel

Bizkaiko Lurralde Auzitegiko magistratua

«Epaitegietan ez du aurrera egin erabilerak»

Nekane San Miguel (Arrasate, 1953) abokatu lanean hasi zen 1976an. 1991n epaile egin zen eta Galizian eta Tolosan jardun ondoren, duela hamar urtez geroztik, Bizkaiko Lurralde Auzitegiko magistratua da. Bere lanbidean euskararen osasuna nolakoa den galdetu diogu.

ONINTZA IRURETA

1993an, Tolosan, egin zenuen lehen epaiketa euskaraz. Uste izan omen zenuen euskararen etorkizuna, justizia administrazioan, oparoagoa izango zela.

Epaitegietan ez du aurrera egin erabilerak, denetarikoa baliabideak zabaltzeko edo nabarmen gehitu arren. Jaurlaritzaren azken aldaketa arte izan diren arduradunak ahalegindu ziren hainbat tresna guztion eskura jartzen, eta aurrerantzean atzeraka ez joatea gustatuko litzaidake. Dena den, erabilera oso eskasa da. Egia da justiziaren eremua ez dela epaitegietara mugatzen, baina hitzarmen pribatuetan eta halako kontuetan nabarmen gehitu izan balitz gure hizkuntzaren erabilera, horrek epaitegietan nolabaiteko isla behar zukeen, eta nik, behintzat, ez dut ikusten. Berriz diot, Justizia Saileko arduradunek funtzionarioentzat (epaile, fiskal eta idazkariak barne) klaseak prestatu dituzte, euren antolaketa eta kudeaketa eskumenen barru diren lanpostu perfilak egin; hainbat dokumentu edo eredu euskaratu, Euskalterm sendotu, baita itzultzaile eta euskara sustatzaile edo animatzaileen kopurua gehitu... Honetaz ari naiz baliabideak aipatzerakoan, eta batez ere 1996az geroztik hasita aritu izan dira.



N. SAN MIGUELEK UTZIA

“Inork irudikatzen du erkidego honetan Katalunian gertatu zena? Mossos d’Esquadrako polizien protesta egiteko modua, guztia katalanez hitz egin eta idaztea izan omen zen. Hemen, ezta Atutxaren garaian ere”.

Euskara ikasteko langileen jarrera eskasa aipatu izan duzu, bai ofizial, laguntzaile eta agenteena esate baterako, eta baita epaile, fiskal eta abarrena. Zer esan nahi du jarrera eskasak?

Ikasteko interesetik aparte, deigarriena zera da: guztion zergen kontura ikasten dutenek ere, oso gutxi erabiltzen dutela, euren artean, eta “justizia eske” datorrenarekin ere,

baina horrelako jarrerak oso hedatuak daude administrazioan, oro har. “Funtzionarioaren” mentalitatea nolakoa den ere jakina da.

Alderik ba al da transferitutako funtzionarioak izan ala ez?

Ez dut alderik ikusten. Jende talde guztietan denetarikoa daudela ere esan beharra dago, baina gutxiengo da errespetuz jokatzeko duena.

Gai honetan errespetuarekin jokatzeko, nire ustez, erkidego honetan bi hizkuntza direla ofizial onartzea da lehen gaia, eta berehalako ondorena, bie –bata zein bestea erabiltzen duenari– trataera berdina eta aukera berberak eman behar zaizkiola jabetzea, halakorik inor uneoro gogora ekartzen ibiltzeke.

Barne egituretako langileez gain, kanpotikako zerbitzuetatik ere gaztelania dela nagusi diozu.

Hori aipatu izan dut, Justizia administrazioa ez dugulako justiziako funtzionarioek eta epaileok bakarrik osatzen: Salaketa bat jartzera Ertzaintzaren edozein komisaldegira, edo hainbat herritako Udaltzaingora joan (urruti joan gabe, ni bizi naizen Arrasatekora joan zaitez) eta ikusiko duzu zein hizkuntzatan jasoko dizuten salaketa. Hori, gero, delitu edo falta den jakiteko epaitegian sartzen da. Bada, %99tan erdaraz sartzen zaigu.

Ez da ardura inori botatze aldera, baina inork irudikatzen du erkidego honetan Katalunian duela urte batzuk gertatu zena? Mossos d'Esquadra polizien protesta egiteko modua, guztia katalanez hitz egin eta idaztea izan omen zen (hala kontatu zidaten). Hemen, ezta Atutxaren garaian ere. Oraingoetan, zer esanik ez!

Zuzenbide fakultateetatik gero eta euskaldun gehiago ateratzen da. Nabari al duzu lanean?

Adibide triste bat jarriko dizut: 1994an Bizkaiko Abokatuen Elkar-goko Praktika Juridikoko Eskolan klaseak ematen hasi nintzen, eta garai haietan “korpus juridikoa” hain landuta ez bazegoen ere, Eskola horretako lehenengo urtetako ikasleak erraz, “korriente” mintzatzen ziren euskaraz. Gaur egun, klaseak euskaraz ematen jarraitzen dugu, baina ikasle askok

klasean ere, euren artean erdaraz egiten dute, eta garbi duzu gero gertatuko dena –hala gertatzen da–: ez dutela euskara erabiltzen euren idazkiak aurkezterakoan, edo funtzionarioei zuzentzerakoan; are gutxiago epaileei.

Duela hilabete batzuk, euskaldundu den epaile batek esaten zidana aipatu nahi dut. Bera hemengoa, bertakoa izanik, ez du euskara jakiteko beharrik izan, baina epaile egin zenean ahalegin hori egitea ezinbestekoa iruditu zitzaion legea bete nahi bazuen. Bere ustetan, hiritarra edo aboka-

“Duela hilabete batzuk, euskaldundu den epaile batek esan zidan ez zaiola demanda bat bera ere euskaraz ailegatu. Horrelako jarrerak euskaldunok deskalifikatu egiten gaituela zioen”

tua euskaraz zuzentzen bazitzaion hizkuntza horretan erantzuna jasotzeko eskubidea zuen. Egun euskara ulertzen du eta polito hitz egin ere, baina ez zaiola demanda bat bera ere euskaraz ailegatu esan zidan, eta horrelako egoera eta jarrerak gu, euskaldunok deskalifikatu egiten gaituela zioen. Luze eta zabal hitz egiteko gaia da hau, eta beste hainbat alorretan (justiziarekin zerikusirik ez dutenak) gure zabarkeria hau azterketa gai delakoan nago.

Gure zilborrera begiratu beharko genukeela behin baino gehiagotan esan duzu.

Oso arrazoi ximplea dela iruditzen zait, eta aspaldi esan zuen poetak hamaika aldiz errepikatu duguna: hizkuntza gugatik galduko dela, guk ez dugulako hitz egiten, guk ez ditugulako hemen bizi diren gure inguruko erdaldunak euskaraz hitz egitera, edo gutxienez euskara ulertzea, “behartu”. Normalizazioa ezin da militantziaz mantendu, baina dugun egoera ikusita normalizaziorako atea militantziaz zabalduko dugu. Ahalegin handia da, baina ez dago beste biderik.

Abokatuak esango du pisutsua dela itzulpenarena eta herritarrak berriz epaitegian aurreragoko lanik baduela pentsatuko du. Aitzakiak al dira? Dudarik gabe. Errua inori botatzea eroso omen da, baina errurik ez duena, errugabea da, ahalmunik gabea. Errua inorena baldin bada, gu errugabeak bagara, beste horrek egin behar, guk ezin dugulako, ezta? Oso diskurtso arriskutsuak entzuten ditut guztiaren kontra, gure errua –eta aldi berean ahalmena– ukatuz.

Nola estimulatatu edo konbentzitu abentura horretan sartzeko?

Geroz eta zailagoa ikusten dut. Sasoi hauetan jendea ez dago ezer sakrifikatzeko gertu. Arazo eta afera guztien soluzioa inori exijitzen diogu, ez bakarrik kontu honetan.

Euskararen arazotxo problema handi bihurtzeko euskaldun denok epaitegietan euskaraz egitea proposatu duzu.

Dudarik gabe hori da egoera aldatzen hasteko lehen urratsa. Atera kontua non gauden, baina berriz diot: irudikatzen duzu sortuko litzatekeen giroa euskaldun guztiok euskaraz mintzatuko bagina non nahi? ■

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA
Miguel Zabaleta 14. 20100 Errenteria
Tel.: 943 44 96 80 euskaltegia@errenteria.net

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Udaltopeko egitaraua prest dago

UDALETAKO euskara zerbitzuen II. topaketak apirilaren 21ean eta 22an izango dira Lasarte-Orian (Gipuzkoa). Aurtengo gaia ondokoa izango da: Nerabeen aisia eta lagunartea: zer eta nola egin daiteke udaletatik nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?

Marina Yaguelloren liburua

ATOAN blogekoek Enric Serra katalanaren blogean izan dute liburuaren berri: *Catalogue des idées reçues sur la langue* (*Hizkuntzaz jasotako ideien katalo-*

goa). Hizkuntzei buruzko aurrejuzkuak lantzen ditu liburuak, batzutan inozenteak diren aurrejuzkuak eta beste batzuetan ez. Hizkuntza “txiki” en zein “handi” en aurreiritziak landu ditu, nola batzuk zailak diren, besteak ederrak eta ondokoak konplikatuak.

Eskolimeko idazkari izango da Paskal Indo

ESKOLIM elkarte duela urtebete sortu zuten Seaskak, Bressolak (eskola katalanak), Diwanak (eskola bretoiak), Calandretak (eskola okzitanoak) eta ABCM-Zweisprachigkeitek (alsazierazko eskolak). Helburua hizkuntzen murgiltze eredia bultzatzea da. Alsa-

zian egin berri dute lehen batzar orokorra eta Patrig Herve aukeratu dute presidente (Diwan), idazkari Pascal Indo Seaskako zuzendaria eta diruzain Jean-Louis Blenet (Calandreta).

Errebote gehitxo

IÑIGO FERNANDEZEN blogean aurkitu dugu oso usua den iragarki mota. Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta Bizkaia Bilbao Basket saskibaloitaldeak egindakoa da.

Hona gaztelaniazko mezua: “Viajando en transporte público te evitas muchos rebotes”. Eta euskarazkoa: “Garraio publikoan bidaiatuz errebote ugari saihestuko duzu”. Jakinekoea, gaztelaniaz sortu eta euskaraz... hor konpon.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN


Eraikuntza nazionala eta soziala

Ezker abertzale barruko eztabaidaren ondorioak aurreko asteko albiste izan dira. Txoko sozioekonomiko honetan, planteamendu politikoan txertaturik dauden alderdi sozialak nabarmenduko ditugu. Horrela diote: “Aldaketa politikoari Ezker Abertzaleak aldaketa soziala gehitu nahi dio, elkarlotzea bien berme dela uste baitu. Aldaketa sozialik gabeko aldaketa politikoa hankamotz geratuko litzateke, eta aldaketa politikorik gabeko aldaketa soziala ezinezkoa da. Beraz, eredu neoliberalak ezartzen duen bidegabekeriari aurre egiteaz gain, aldaketa politikoaren norabide egokia eta herri zein langile sektoreen indar metaketa ere ahalbidetuko litzuke garatu behar dugun ezkerreko borrokak. Sindikalgintzak egin behar duen lana funtsezkoa da”.

Hain zuzen, nazio eraikuntza egin daiteke ikuspegi burgesetik edo ikuspegi sozial, progresista eta solidariotik. Ezker abertzale sozialista eta antikapitalistaren apustuak elkar lotzen ditu Euskal Herriaren eraikuntza nazionala eta soziala. Eta horretarako aldaketa politiko eta soziala behar da. Gure subiranotasun ekonomikoak, gure eredu ekonomiko eta produktiboak, gure politika fiskalak, energiak, enpleguak, gizarte segurantzak, pentsioak, etxebizitzak, etorkinen integrazioak, nazioarteko elkartasunak... subiranotasun politikoa behar dute, agintean dagoen eredu neoliberalak baztertu eta alternatiba sortu nahi bada bederen. Zeren eta aldaketa politikoak aldaketa sozialik gabe ez dira nahikoa, eta ezin da egon aldaketa sozialik aldaketa politikorik gabe.

Gainean dugun erasoaldi neoliberal eta kapitalistaren aurrean, Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta sozialerantz egiteko, dudarik gabe oso pauso garrantzitsua da indar politiko, sindikal eta sozialak batzea. Jadantik ezagutzen eta jasaten dugu Madril eta Pariseko gobernu neoliberalen menpe egon beharra.

Juan Mari Arregi



BAHEA

Gasteizen bizi da Masengo Inamfumu kongoarra. Euskara ikasten ari da euskaltegian. E/Correan esanak dira: “Hizkuntza ikasteko dugun arma bakarra ‘txapuzeatzea’ da, zeren zuzentzen dizutenean aurrera egiten duzu pixka bat. Hemen oso isilak zarete, barregarri geratzeko eta hanka sartzeko beldurra duzue, baina ausartu egin behar da”. Sei hizkuntza hitz egiten ditu eta hiru urte barru euskararekin moldatuko dela dio.

Konstituzionalismoa bere gotorlekuan

"ZUTIK EUSKAL HERRIA"

kaleratu ondorengo zalaparta, funtsean, egungo une politikoan espero zitekeena da: alderdi eta indar abertzaleek oro har ondo hartu dute, denak era positiboagoan, baina EAK –batez ere– eta ELAk prozesuari konfiantza gehiago eskainiz eta elkar lanerako atea garbiago zabalduz. EAJk eta Aralarrek ere norabide egokian ikusi dute agiria, baina orain arteko uzurtasuna ageri da ezker abertzale historikoak egiten dizkien proposamenen aurrean, batez ere EAJren aldetik. Aralarrek ez dio autodeterminazioaren aldekoen indar metaketari uko egiten, baina orain arte mesfidati ikusten ditu polo soberanistarekikoak.

Espainiar konstituzionalisten eremuan, PP eta PSE-EEko jendearen artean (adierazpenetan, prentsan...) jarrera desberdinak ageri badira ere, funtsean diskurtso itxia agertu dute ezker abertzalearen eztabaida amaieraren aurrean. Jakin ondo dakite "Zutik Euskal Herria" agiriak aldaketa handia suposatzen duela ENAMen baitan eta aldaketa handiak ekar ditzakeela euskal politikara. Baina une honetan ez da komeni halako aitortzarik egitea, horrek Batasunari haizea ematen diolako.

Argi da Batasunaren jokaldi honetan 2011ko hauteskundeetako helmuga funtsezkoa dela, baina askoz garrantzitsuagoa da ikuspegi historiko eta estrategikotik esan nahi duena, hau da, gaur gaurkoz, borroka armatuaren amaiera. Gainerakoak, burujabazaleen indar metaketa eta abarrek, Estatuaren aurrean eraginkorra izate aldera bederen, denbora behar du. Urteetan suntsitutakoa ez da hilabete gutxi batzuetan berregiten.



Konstituzionalistek harresi mediatikoarekin jarraitzen dute. Badakite ENAMen eltzean egosi dena oso garrantzitsua dela, eta horrek aldaketa asko ekarriko dituela, lehenago edo geroago. Baina saiatuko dira eragina moteltzen eta atzeratzen, batez ere Batasuna hauteskundeetan egotearena, besteak beste, PPren eta PSE-EEren artekoa hauteskunde egunaren biharamunean amaituko litzatekeelako. Ez da ahaztu behar egungo errealitate instituzionala Batasuna legez kanpo egotearen ondorio dela, eta honen eskubideak berrestean panorama politikoa irauliko dela, batez ere EAEn, eta neurri txikiagoan Nafarroan.

Tira, PSE-EE eta PPk badakitela hori guztia eta saiatuko direla gutxienez datozen hauteskundeetan Batasuna ez dadila egon. Denbora haien alde dute, baina ETArek atentatu barik, samur ere ez dute izango. Gainerako alderdi abertzaleek ere ezingo dute orain arte bezala jokatu Batasunarekiko, hau da, "haiek euren estrategia itsuan jarraitzen badute, gu ez gaituzte horretara eramango". Egoerak eskubide politiko eta zibilen aldeko bestelako konpromisoa eskatuko die.

RUFÍ ETXEBERRIA. Txelui Moreno eta Tasio Erkiziak argi utzi zuten norabide berriaren izaera eta garrantzia asteburuko elkarrizketetan. Badira azpimarratzeko modukoak: Etxeberriak ETA ere ezker abertzalekoa dela

gogoratu du argi eta garbi, eta erakundeak eztabaidaren ondorioekin bat egiten duela adierazi duela. Tasio Erkiziak eta Txelui Morenok ETArek atentaturik ez dutela espero adierazi dute, eta Morenok ez du zatiketaren arriskurik ikusten. Azken honek, halaber, argi hitz egin zuen Nafarroako egoeraz: "NaBaik

dagoeneko erakutsi du ez dela aldatetarako tresna Nafarroan. NaBaik hasieratik erabaki zuen ez iragatea Estatuak jarritako marra gorria".

Pentsatzekoa da EAEko egoeran hauteskundeak begirako aliantzak ez direla samurrak izango, zerbait eraikitzeko ez dagoelako ezer desegin beharrik, baina Nafarroan korapiloa itzela da. Batetik, gaur egun Nafarroa Bairen egoera kaskarra dago. NaBairen arrakasta funtsean UPNren aurkako jarreraren dago, hura Nafarroako Gobernutik kanporatzea bestelako helburu politikoen gaineratik jarri zen eta Nafarroako gizarteak –batez ere abertzaleek– ulertu zuen mezua eta saritu ere bai.

Gaur egun NaBai-ko alderdiak itxura penagarria ematen ari dira beren botoemaitzen aurrean, baina aurretik ere hala izan da zenbaitzuetan eta gero konpontzeko gai izan dira. Nafarroako EAren zeregina ere ez da samurra izango, batetik ikusi behar delako foru lurraldean Hamai-kabaten indarra noraino iristen den eta, batez ere, EAEn eta Nafarroan estrategia bera eramango ote duen erabaki beharko duelako. Pello Urizarrek adierazi du EAren apustua NaBai dela, eta hor egin beharko litzaikeela leku Batasunari. Baina Morenoren hitzek argi erakusten dute Batasunaren jarrera zein den. Egoera berriak ekarritakoa ondo eta lasai birpentsatu beharko dute guztiek.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Hondakinik onena sortu ez dena: Zero Zabor

Zero Waste kontzeptua indartzen ari da urteotan hirietako hondakinekin administrazioek darabilten kudeaketaz kritiko diren mugimenduen artean. Errausketaren kritikatik harago, hondakinak ahal bezainbeste urritzeko produkzio-salmenta-kontsumo osoa berrantolatzen saiatzen dira.

HERNANIN ZERO ZABOR TALDE txiki bat da, Euskal Herrian hondakinez eta klase guztietako kutsadurez kezkatzen diren elkarte ugarien artean bat gehiago. Aldiz, *Zero Waste* (Zero Zabor edo Zero Hondakin ingelesez) kontzeptua oinarri nagusizat hartu dutenak ugaritu egin dira mundu osoan urteotan.

Joan den azaroan egin zuen 6. biltzarra Filipinetan, Puerto Prince-sa hirian, Zero Waste International Alliance-k. Hartan parte hartu zuten hizlarien eta elkarteen jatorri-erreparatu besterik ez dago ohartzeko elkargune horrek goiburutzat hartu duen *Working toward a World without waste* (Zaborrik gabeko mundu baten alde lanean) bazter guztietatik kutsatu dela.

Europatik Filipinetara hurbildu zirenen artean italiarrak nabarmendu ziren. Errauste planten kontrako borrokatik abiatu eta Atez Ateko (A-A) bilketa sisteman aitzindariak izan diren italiarrek lan handia egin dute alor honetan. Ez dago Google-ri *Rifiuti Zero* galdetu besterik horretaz ohartzeko. Euskal Herrian *Zero Wasteren* lehen berriak Txingudiko errauste plantaren kontrako ekintzen inguruan zabaldu ziren duela pare bat urte, eta orain A-A Gipuzkoako Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen antolatzearekin ari da berriro aipatzen.

Zero Wasteren historia eginez gero azken 40 urteotan hiri hondakinen inguruan herrialderik garatuenetan landutako alternatiben haria jarrai daiteke. Ingeleseko Wikipediaren arabera, kontzeptua lehenbizikoz Paul Palmer kimikari kaliforniarrak erabili zuen: 1970eko hamarkadan Zero Waste Systems enpresa antolatu zuen orduan sortu berria zen elektronikaren industria-ko hondakinak birziklatzeko.

Idea negoziotetan sortu zela ez da ahaztu behar. Gaur egun oraindik *Zero Waste* aldarrikatzen dute ekologismotik edo kutsaduraren kritika erradikaletik urrun dauden konpainia handi batzuek. Lurreko zaborte-geiak ziren orduko buru argien kezka iturria. Beranduago, bigarren aro batean, ahalik eta hondakin gehien birziklatzea aipatzen zen.

2000. urte inguruan indarra hartzen hasi ziren Zero Zabor ideia modu zorrotzagoan aztertzen zutenak. Edozein produktu ekoiztu, garraiatu, saldu eta kontsumitzerakoan sortzen diren hondakin guztiak hartu nahi zituzten kontutan, bakar batzuk birziklatze soiletik askoz harago.

...*Getting to Zero Waste* (Zero Zaborreruntz) liburuan Paul Palmerrek dio teoria horren inguruan bil-tzen direla ingurumenaren arazo

Eco-Waste Coalition-ek Interneten lagatako argazki hau joan den azaroan egin dago, Filipinetako Puerto Prince-sa hirian. Han burutu zuen 6. biltzarra Zero Zabor kontzeptuaren inguruan mundu osoan mobilizatutako taldeek osatzen duten Zero Waste International Alliance-k. Antolatzaileetan zegoen GAIA ere, etxeetako hondakinak erraustearen kontrako mugimendua, 2007ko irailean Gipuzkoako Hondarribian biltzarra egin zuena. Argazkirako mozturrotu diren militante filipinarren gibelean idatzirik ageri dira *Zero Waste* programaren osagai nagusiak: (ingelesezko ordena errespetatu gabe) hondakinak murriztu, bereizi, berrerabili, konpondu edo zaharberritu, konpostatu... *Zero Waste Filipinas* gunean eskuragai daude han aurkeztutakoak.

guztiak, klimaren aldaketa bezala uraren eta airearen pozoitze kimi-koa, itsasoko arrainen urritzea eta abar. "Jende gehienak okerreko galderari erantzuten dio hondakinen kontuan. Galdetzen du 'zer egin behar dut hondakina usatu ahal izateko?'. Baina galdera ona da: 'Zer aldatu behar dut zaborrik ez sortze-ko?'".

Zakarretarako ezer ez

Azken urteotan Zero Zabor ideia- ren inguruko jende erreferentzialak Paul Connett eta Annie Leonard dira.

Leonarden *Story of Stuff* (Gauzen istorioa) filma klasiko bat da gaur egun. Ingelesez sortua baina hizkuntza askotara itzulita (gastelaniaz badira bi bertsio Interneten, onena doinu ertamerikarra duena) herrialde aberatsetan bizi dugun kontsumismoak azpian dauzkan egiak azaleratzen ditu, egunero darabiltzagun gauzen sorrera eta ibilbidean argi eginez.

Paul Connet kimika irakaslea da New Yorkeko Saint Lawrence uni-bertsitatean, baina gaur aurkituko duzu Filipinetako biltzarrean hitzal-di nagusia ematen edo hurrengoan Italian, *Rifiuti Zero*ren edozein kan-painatan parte hartzen. Bere burua unibertsitariotzat adina mugimendu sozialen laguntzailetzat dauka.



Connettek badu paper bat non bere ideia laburbiltzen duen: *Zero Waste: a Key Move towards a Sustainable Society* (Zero Zabor: urrats funtsezkoa gizarte iraunkorrerantz). “Zero Zaborrek –dio Connettek– ezetz esaten die errauskailuei, zabortegi erraldoiei, gizarte xahutzaileari... eta baietz gizarte jasagarriari. Idealista dirudi, baina egia bihurtu dezakegu. Ez dugu espero behar zero zaborretara iristea datorren urtean, baina aurreratu dezakegu herri batzuk 2020rako horretatik oso hurbil egongo direla”.

Ingeles ez hiru R aipatu izan dira hondakinen aferetan: *Reduce*, *Reuse* eta *Recycle*. Connettek laugarrena erasten die: *Responsability*. Herritar, udal, industrial, profesional, politi-

kari... denek hartu behar dituzte dagozkien erantzukizunak.

Zero Waste aldarrikapena gehiengotik herritarretatik hasi ohi da, sarritan administrazioek eta industria handiak hitzartu dituzten errauste plantei aurre egiteko alternatiba bila hondakinen bilketa selektiboa aldarrikatzen dutenean. Hala ere, Zero Zaborrek eskatzen du industrialak eta saltzaileak inplikatzeko gero eta gehiago. Edozein produktuk diseinatu den unetik egon behar du presatua iraunkortasunerako, produktio prozesuak garbia izan behar du, garraioak sortzen dituen hondakinak ez dira ahaztu behar, eta produktutik kontsumitu ondoren gertatzen denak berrerabiltzeko pentsaturik egon behar du.

Katearen beste muturra, produktua kontsumitu ondorengo, komunitateei dagokie egoki kudeatzea. Etxeetan bezala industrian eta komertzioan sortu diren hondar organikoak konpostatzea da arau nagusietako bat, baina ez bakarria. Birziklagarria den oro bereizi behar da azken errefusetik. “Errefusak dira gure akatsak” dio Connettek: errefusen tamainak erakusten du komunitate bat zein urrun edo hurbil dagoen Zero Zaborretik.

Hondakinen murrizten ahalegindu behar dute herriek eta administrazioek. Interneten begira hasiz gero munduan zein taktika erabiltzen diren, dena dago asmatuta, bai herritarren kontsumo ohiturak aldatzeko eta bai saltzaileak behartzeko hondakin gutxiago merkaturatzera. Ezer asmatzen hasi aurretik kopiatzeko adina eredu bada.

Zero Zaborren logikak eskatzen duen beste urratsa da kontsumoko objektuen konponketa eta zaharberritzea sustatzea. Azken finean, gaur bezala biziraupena luzatzea. Nahiz eta bitxi egiten den hau, normaltasun bakartzat ezarrita dagoenean dena merke erosi, berehala xahutu eta fite zakarretara botatzea.

Paul Connettek aipamen berezia egiten dio eraikuntzari: zaharra osorik eraisteko lan modua aldatu beharra dagoela. Eraikuntzak sekulako hondakin pila sortzen du, gaur ezin erabilizkoa. *Destruction*en ordez *deconstruction* behar dela, zaharra desmuntatu eraikuntzako erritmo berean, ahalik eta osagairik gehien berrerabili ahal izateko.

XXI. mendeko ideia nagusietakoa izanen da planeta mugatuko baliabideak ondo probestu beharra. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira

Iñaki Martínez de Luna

Euskara bai, baina nola?



zagunak dira euskararen inguruan hartu berri diren hainbat neurriek sektore euskaltzaleetan eragin dituzten kezkak. Izan ere, politikari batzuentzat egokia ez ezik nahikoa den planteamenduak, beste sektore batzuen aburuz, galbidera darama euskara.

Zergatiak bilatzen hasita, hizkuntza-jarre-rei erreparatu behar diegu. Azken finean, gizartean nagusitzen diren jarrerak dira hizkuntza baten eta bere hiztun-taldearen oraingoa eta etorkizuna markatzen dituztenak.

Euskara, EAEko izaeraren ardatz-irudikaria da; alegia, ezinbesteko ezaugarri bihurtu zaigu erkidego honetako biztanle gehienentzat, eta altxor kultural hori zaindu beharra dagoela erabat barneratua dago Euskal Herriko geografia zati honetan. Jarrera horrek duen onarpen zabala egiaztatzeko aukera izan dut hainbat informazio bilketaren eskutik; ez dago duda izpirik. Egia da, egungo balioen hierarkian halako kultura-ikurrak ez direla gizartean lehentasuna hartzen dutenak, baizik eta –Zygmunt Baumanen irakaspenei jarraiki– kontsumismoaren inguruan eraikitakoak. Dena den, euskara askorentzat bigarren mailako gaia dela jakinda ere, biztanle gehien-gehienek euskal izaeraren osagai garrantzitsutzat dute gure hizkuntza, “nola edo hala” ulertuta.

“Nola edo hala” horretan datza gakoa, alegia. Izan ere, euskararen biziraupena ziurtatu behar dela zalantzan jartzen ez den arren, benetako auzia da nolako biziraupena eta hori “nola” bideratu argitzea. Euskara hizkuntza nagusi gisa –leaniztasunaren ezinbestekotasuna gogo onez zein txarrez onartuta?– edo gaztelaniarekin batera, biak ala biak berdintasun eta oreka egoeran? Ala gaztelaniaren apaingarri folkloriko gisa, egungo diglosia egoera ontzat emanda?

Galdera horien aurreko erantzuna nolakoa, orain arte euskararen normalizaziorako egin diren ahaleginen balorazioa halakoa, hurrenez hurren, honakoak: a) gutxi egin da eta abiadura horretan ez da inoiz normalduko; b) aurrerapausoak eman dira, baina jarraitu behar da, bi



ALEX LARRETXI

hizkuntzen arteko oreka lortzeko oraindik falta da-eta; c) euskararen egoera hobetzeko nolabaiteko neurriak beharrezkoak diren arren, azken hamarkadetan ezarri diren derrigortasuna eta inposaketa jasanezinak dira. Alde ederra, bistan da, mutur batetik bestera doana.

Posible al da desadostasun horren gainean etorkizun oparorik eraikitzea euskararentzat? Ezezkotan nago, batzuentzat hartu beharreko neurriak direnak, besteentzat askatasun eta eskubide pertsonalaren kontra-koak direlako. Are kezkagarriagoa, neurrien inguruko balorazio kontrajarri horiek hizkuntza-gatazkari irekitzen diote atea, zabal-zabalik.

Ataka larri honen sorburua zein izan da? Batetik, hizkuntza-politikaren inguruko helburu partekaturik ez egotea; ez, behintzat, gizarte gehiengo zabal-zabal batentzat. Bestetik, gizartearen baitako kontsentsu falta horretan oinarritutako tentazioa saihestezina izan da alderdi

politikoentzat; hots, euskararekiko politikak arma erasokor gisa erabiltzea.


Badago horren azpian, hala ere, arrazoi sakonago eta funtsezkoago bat: soziolinguistikaz gizartean dagoen ezjakitua. Izan ere, gizarteak ez daki hizkuntza bat berreskuratzeko zer-nolako neurriak hartu behar diren; ez daki hizkuntza-aren egoera ahula neurri bereziekin konpentsatu behar ote den; ez daki euskal hiztunen eskubideak zein gutxi errespetatzen diren...; hainbat gauza ez daki! Ezjakintasun horrekin, jendeak ezin du neurri batzuen premia ulertu, hizkun-

tza ikasi edo jakin beharra baino ez du ikusten eta, sentimendu horiekin, txotxongilo bat da alderdi politiko batzuen eskuetan. Hauek, lan pedagogikoa egin partez, gizartearen zalantzak eta kezkak baliatzen dituzte euren interesak lortze aldera.

Hortaz, euskararen arriskuez eta soziolinguistikaren konplexutasunaz gizartea ongi jabetuta egotea da egoera hori iraultzeko abiapuntua. Baten batek zioen politika gauza garrantzitsuegia dela politikarien eskuetan uzteko; euskara ere bai. ■

Gizarteak ez daki hizkuntza bat
berreskuratzeko zer-nolako neurriak hartu
behar diren; ez daki hizkuntza-aren egoera
ahula neurri bereziekin konpentsatu behar
ote den; ez daki euskal hiztunen
eskubideak zein gutxi errespetatzen diren...;
hainbat gauza ez daki!

ASTE HONETAKO zozketa



Guikuri Nekazalturismoa

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Guikuri, 1
Murua ARABA

www.guikuri.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIZPUKOA

www.aquariumss.com

2




Artez euskara zerbitzua

8
poltsiko agenda

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

3



Txalaparta argitaletxea

5
liburu opari

Navaz y Vides kalea 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Kirolaz Badakit

3 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

CHILLIDA-LEKU MUSEOA

- Antton Dorronsoro Gaztañaga (Igeldo)
- Donostiako Justizia Jauregia (Donostia)
- Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)

KEMEN LERTXUNDI

- Esther Urbina Amezaga (Portugalete)
- Eneko Maior Ganboa (Orexa)
- Imanol Arluizaga Esnal (Donostia)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

- Muñagorri Herri Ikastetxea (Berastegi)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Joseba Berriozabal Urkiza (Zumaia)0
- Eider Illarramendi Azkue (Zarautz)

TXORIA TXORI, GARTXOT

- Iruñezar AEK Euskaltegia (Iruñea)
- Aratz Erretegia (Donostia)

UGARTE NEKAZALTURISMOA

- Joxan Apaolaza Bernedo (Oiarzun)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

